

URTEKARIA DEBAGOIENA 2010

URTARRILA 2 | OTSAILA 6 | MARTXOA 10 | APIRILA 16 | MAIATZA 20 | EKAINA 24 | UZTAILA 28 | ABUZTUA 32 | IRAILA 34 | URRIA 38 | AZAROA 42 | ABENDUA 48
ONENA ETA TXARRENA 52 | ELKARRIZKETA 58 | URTEKO MUSIKA 61

LANDETXEA - CASA RURAL
EGUZKITZA

Eibarreko errepidea z/g
Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikokoa: 679 41 66 97
e-posta: *casaeguzkitza@hotmail.com*



Gabon zoriontsuak guztioi!

ETA ORAIN ZERBITZU BERRIEKIN:
ZELULAK BIRSORTZEKO KAPSULA
ETA **MASAJEAK**

ELGETA
AIXOLA BASERRIAN ADINGABEENDAKO ZENTROA
Arazoak sortzen dituzten etorkin adingabeak hartzeko zentroa izateko egokitzapen lanak amaitu zituzten urtarrilean Elgetako Aixola baserrian. Zortzi etorkin adingaberekin zabaldu zuten zentroa, haiek bergizarteratzeko helburuarekin.

DEBAGOIENA
OHIKOAK BAINO DIRU EKARPEN HANDIAGOAK HAITIREN ALDE
Mundua ikaratu zuen gertaera tamalgarria ekarri zigun urte berriak: Haitiko lurrikara. Milaka lagunen heriotza eta hondamendia eragin zituen. Haiei laguntzeko diru ekarpenak antzeko hondamendietan baino handiagoak izan ziren gurean.

ARRASATE
UDALTZAINEK EGOITZA BERRIA ESTREINATU ZUTEN
Mondragoeko udaltzainek urtarrilaren 25ean estreinatu zuten egoitza berria Nafarroa etorbidean. Udaletxean zuten egoitza udaltzainek, baina zazpi lagunendako tokia bakarrik zuten han eta 35 laguneko lantaldea osatzen dute.

ARRASATE
IBAN VELASCO
EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO TXIRRINDULARIA

"Esan digute aurten dopin kasu bat egonez gero, tadea desagertu egingo dela"

BERGARA
JUAN MARTIN ELEXPURU
IDAZLEA

"Iruña-Veleiako aurkikuntzak benetakoak direla uste dugu askok"

ESKORIATZA ETA ARAMAIO
Ondorio larriak eurite amaigabeengatik ►

Urtarrileko azken asteburuko eurite amaigabeek kalte handiak sortu zituzten Aramaion eta Eskoriatzan bereziki. Luizien ondorioz, Eskoriatzako Aranburuzabalako 26. zenbakiko 24 bizilagunek etxetik kanpo eman zuten gaua. Hilabete egon ziren etxera itzultzeke. Ondorio larriagoak izan zituen Aramaiotik Arrasatera arteko kaminoak. Cuatrovientos baserriko malda behera etorri eta errepidea itxita geratu zen. Itxita segitzen du eta berria egiten dabiltza.

DEBAGOIENA
Lehen elurteak haserreak eta pozak sortu zituen ▲

Urte hasierak lehen elurtea ekarri zuen. Urtarrilaren 8an, egubakoitza, hasi eta domekara arte iraun zuen. Elurrak eta izotzak haserrealdiak sortu zituen kaminoan eta kaleetan zebiltzanen artean. Domekan, berriz, aisialdirako aprobetxatu zuen jendeak. Lera, eski eta plastikoak hartuta jende piloa batu zen inguruko mendi eta zelaietan. Postal dibertigarri eta ederrak ikusi genituen.

ARRASATE
Gureak taldeak ireki zuen Garaiako jatetxea ►

Urtarrilaren 11n zabaldu zuten Garaia Ikerkuntza Guneko jatetxea. Kafetegi eta jatetxe zerbitzua eskaintzen du Gureak taldearen establezimenduak. Zortzi gutxituk, sukaldari nagusiak eta jatetxeko arduradunak egiten dute lan han; *self–service* zerbitzua eskainiz eta astelehenetik zapatura bitartean. "Jateko garbiak eta etxean egindako postreak eskainiko ditugu", esan zuen orduan Jesus Mari Kalboetxeaga sukaldari nagusiak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.000 ale.
Difusioa: 19.724 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

DEBAGOIENA 2010 URTEKARIA
Zuzendaria Eneko Azkarate.
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Leire Kortabarria, Xabi Urtzelai, Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Arantzazu Ezkibel, Edu Mendibil, Lander Muñagorri, Mirian Biteri, Mireia Bikuña, Jokin Berezibar, Mirari Altube, Arritxu Barruso.
Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo, Raul Lozano.

Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Argazkiak Erredakzioa, Josetxo Arantzabal, Julio Calleja, Argazki Press.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

HONAKO URTEKARIAREN EDIZIOA ABENDUAREN 23AN ITXI DU GOIENAK

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

OÑATI

URKI BAT MOTOZERRAREKIN MOZTU ZUTEN EZEZAGUNEK

Ezezagun batzuek 30 urteko urki bat moztu zuten motozerrarekin Oñatiko Zuazola institutu ondoko lorategian. Goizaldeko 4ak aldera izan zen. Udal arduradunek "lotsagarria eta ingurunearen eta naturaren kontrako" erasoa izan zela salatu zuten.

BERGARA

65.143 EURO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEENDAKO

Bergarako Udalak 65.000 eurotik gora banatu dizkie aurten 10 gobernuz kanpoko erakunderi. Modu orekatuan. Batez beste, 6 milioi euro jaso dituzte hirugarren munduko proiektuetarako. Urtarrilean eman zuten dirulaguntzen berri.

ESKORIATZA

MAIDER OTAMENDI

EA-KO ZINEGOTZI BERRIA

EAk Eskoriatzako Udalean hutsik zuen eserlekua hartu zuen urtarrilaren 27an Maider Otamendik. Udalera lanerako "gogoz" sartu zela esan zuen.

BERGARA

RAMON GARITANO

ARKITEKTOA

Industria ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak saritu egin zuen urtarrilean arkitekto bergararra, orain dela 28 urte Bergarako kiroldegian egindako lanagatik.

ANTZUOLA

IÑAKI TOLEDO

ESPAINIAKO OILAGOR EHIZAN TXAPELDUNA

Oilagor bakarra botata nahikoa izan zen ehiztari antzuolarra Espainiako txapeldun irteteko. Urtarrilaren 16an jokatu zen Errioxako Lumbreras herrian.

ELGETA

Errege Magoak Elgetan 40 urteren ondoren ►

Urtarrilaren 5ean iritsi ziren Ekialdeko Errege Magoak gure etxeetara txikienendako oparizakua beteta. Herri guztietan egin zuten kaleko kabalgata eta bereziki berezia izan zen Elgetakoa, azkeneko urteetan egiten ez zelako. Umeen harridurazko begiradapean karameluak banatu zituzten Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek. Batez ere Bergaran du tradizioa Errege bezpera egunak, baina Elgetan 40 urte ziren kabalgatari egiten ez zena.

OÑATI

'Egunkaria'-ko auzipetuei babesa Arantzazun ▲

Artean *Egunkaria* auziko epaia ezaguna ez zenean, urtarrilaren 23an *Egunkaria*-ren aldeko elkarretaratzea egin zuten hainbat pertsona ezagunek Arantzazun, "Euskal Herriaren bihotzean". Kultura, zientzia eta politika alorrekoak: Arzalluz, Garaikoetxea, Etxenike, Atxaga, Fermin Muguruza; Olano eta Agirre, Gipuzkoako eta Arabako ahaldun nagusiak... Jasotako babesa eskertu zuen auzipetuetako batek, Torrealdaik, denen izenean.

ARRASATE

Des-kontrol: 50 lagunek erasotu eta ospitalera ►

Barakaldoko San Vicente auzoko jaietan, txosnetan, bortizki eraso egin zieten 50 bat kaskamotzek Arrasateko Des-kontrol taldekoei, urtarrilaren 22an. Horretarako, barrak, botilak, makilak eta ukabil amerikarrak erabili zituzten. Zauri eta kolpe handiak jaso zituzten eta ospitaletik pasa behar izan zuten sendatzeko. Des-kontrolekoak jarrera eta estetika faxistarekiko anbiguoegiak direla leporatu zieten erasotzaileek. Hori ukatu egin zuten arrasatearrek.

ARRASATE

RAIMUNDO AMADORREK BETE EGIN ZUEN HIRU ARETOA

Jendez lepo bete zuen Arrasateko Hiru aretoa Raimundo Amador andaluziar musikariak urtarrilaren 15ean. Bluesa, rocka, flamenkoa, rumba, popa... denetik apur bat eskaini zuen. "Euskal Herrian beti hartu nauzue ondo", esan zigun emanaldiaren aurretik.

DEBAGOIENA

EROSKIRI KALTEA EGITEARREN ZIGORRA KAZETARI BATI

Eroskiri kalte morala egitearren zigortu zuten Cristina Lopez Schlichting kazetaria urtarrilean. 3.000 euro ordaintzera zigortu zuten epaileek Eroskik, Batasuna diruz finantzatzen duela esatearren. Fagorri boikota egitera ere deitu zuen kazetariak.

DEBAGOIENA

GOIENA TELEBISTA MODU DIGITALEAN IKUSTEN HASI ZEN

Goiena Telebista Lurreko Telebista Digitalaren bidez ikusten hasi zen urtarrilean Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Urrats garrantzitsua egin zuen ibarreko euskarazko telebistak, geure barrutian beste inork baino lehenago.

ARRASATE

Extremadurako granitozko harria Kanpatorpen ▲

Kareharrizko zorua altxatu eta granitozkoa jartzeko lanak hasi zituzten Arrasateko Kanpatorpe kalean. Urtarrilaren 12an hasi zituzten lanok. Argiteria aldatu eta saneamendu lanak ere egin zituzten. Excavaciones Arrasate enpresak egin zituen lanak, 93.000 euroko aurrekontuarekin. Lehengo kareharrizko zorua oso labainkorra zen, batez ere bustita zegoenean. Horregatik aldatu zuten. Harriak bi partikularrek eskuratu zituzten enkantean.

ARAMAIO

Bea Azurmendi ikus-entzuleen gustukoenak ▲

Bea Azurmendi aramaioarrak eta Miren Oteitza eibartarrak eroan zuten ETBko *Bi gira* kantu lehiaketako ikus-entzuleen saria. %46rendako bikoterik onena osatu zuten eta 2.000 euro irabazi zituzten. Urteberri egunean jokatu zen finala.

ARRASATE

Ekon taldearen agurrean 700 lagun Durangon ►▲

Ekon talde arrasatearrak agurreko kontzertua eman zuen Durangoko Plateruenan urtarrilaren 16an. Beste bost talderekin batera –horien artean Sharon Stoner oñatiarrak eta Anger arrasatearrak– eman zioten amaiera ibilbide oparoari. 700 lagun elkartu ziren emanaldi historikoan eta Ekonek zoramena ekarri zuen *show* bizi eta ikusgarriarekin. Ordu eta erdiz taldearen *hit* gehienekin gozatzeko aukera izan zuten bertaratuek.

Andra Mari Auzunea, 3 Behea
ARETXABALETA
Tel. / Fax.: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ANDRA MARI
AHOLKULARITZA

FISKALA • KONTABLEA
LABORALA • DEFENTSA JURIDIKOA

Jai Zoriontsuak eta Urte Berri On!

Garbittu

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

Santakurtz 24 behea. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Zorionak eta Urte berri on!

ARAMAIO ETA ARRASATE

SAGARDOTEGI DENBORALDIARI HASIERA EMAN ZITZAION

Arrasateko Txondorrak eta Aramaioko Iturrietak urtarrilean hasi zuten sagardo denboraldia, 19an eta 23an hain justu ere. Gose taldea, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Gasteizko Trikitixa Eskolakoak izan ziren irekiera ekitaldian.

ARETXABALETA

JOSE MARI SARASUA HIL ZEN, 72 URTE ZITUELA

Gaixotasun larri baten ondoren hil zen Jose Mari Sarasua urtarrilaren 22an, 72 urte zituela. Euskaltzalea, bertsozalea eta kooperatibista, elkartasun proiektuetan konprometitua. Copreci, Hiruatx edota Mundukideren sortzaileetako bat.

BERGARA

MARI KARMEN AIASTUI

J. L. ELKORO REN EMAZTEA

"Miaketak direla-eta, erabaki dugu aurrez aurreko bisetara ez sartzea"

BERGARA

MIKEL GANTXEGI

MUNDUKIDEKO ZUZENDARIA

"Proiektuak bultzatu ditugun herrialdeetan hobetu egin dira bizi baldintzak"



OÑATI

ANDONI GARTZIA

GARAIAKO GERENTEA

"Azken urteotan oparotasunean bizi izan gara eta moteldu egin gara"

DEBAGOIENA

Ibarreko txakolina ere Getarian, jatorri izenarekin ▲

San Anton egunean, urtarrilaren 17an, egin zuten Getarian Txakolin Eguna. Han batu ziren Getariako Txakolina jatorri izeneko txakolin ekoizleak, baita Debagoienekoak ere; hain justu ere, Jabier Arregi, Arrasateko Hegi Haundi baserriko Kataide txakolinaren egilea. Kataide, Upain eta Otxia dira jatorri izen deitura duten ibarreko markak.

ARAMAIO

Sokatiraren hiriburu izan zen herria egun batez ◄▲

Aramaiok sasoi batean sokatira talde handia izan zuela-eta, egun batez sokatiraren hiriburu bihurtu zen Aramaio urtarrilaren 30ean. Izan ere, hantxe jokatu zen Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa. Abadiño izan zen gizonekoen artean onena eta Gazteizko Badaiotz taldea, emakumezkoetan. Eguraldi traketsa izan arren, pilotalekuan giro bikainean jokatu zen lehia.

ARRASATE
INBERTSIOAK ERDIRA JAITSI ZITUZTEN AURREKONTUETAN
Inbertsioak %51 jaitsi zituen Udalak: 2009an 14,4 milioi euro zuzendu zituen inbertsioetarako; bada, 2010ean 7,04 milioira jaitsi zen kopurua. Aurrekontua 2009koa baino %14,35 txikiagoa izan zen 2010ean. Krisiaren eragina are nabariagoa izan zen.

ESKORIATZA
HILERRIRAINOKO BIDEGORRI ZATIA EGITEN HASI ZIREN
Otsail erdialdean hasi ziren Eskoriatza-hilerria bidegorri zatia egiten. Eskoriatzako iparraldeko eta hegoaldeko bidegorriak lotu ziren proiektu horretan. Ez zen luzera handiko tartea izan, 300 metro inguru. Aurrekontua 797.572 euro izan zen.

ARRASATE
MALEN RUIZ DE AZUA
ATLETA
Malen Ruiz de Azua arrasatearrak Espainiako kadeteetako errekorra ontzea lortu zuen 3,48 metroko pertika-jauziarekin. Oviedon, berriz, 3,25 metroko saltoa egin zuen.



OÑATI
AITOR OTXOA
EUSKADIKO MENDIKO ESKIKO TXAPELDUNORDEA
Aitor Otxoa eta Iban Letamendi mendiko eskiatzaile oñatiarrak Euskadiko txapeldunorde izan ziren bigarrengoz. Lehenak "oso gertu" izan zituzten.

BERGARA
JUAN MARI AGIRREURRETA
IDAZLEA
Pasai Donibaneko Juan Mari Agirreurreta idazleak irabazi zuen Bergarako amodiozko gutunen XVIII. lehiaketa. Testu bakarrean bi gutun idatzi zituen irabazleak.

ARAMAIO
Bidea zabaltzeko eskaera 100etik gora lagunek ◄
Otsailaren 6an Cuatrovientos baserriko bidean AHTko lanek eragindako lur-jausiak eragindako kalteen aurrean protesta egin zuten 100dik gora aramaioarrek. "Halako makroproiektu" baten aurreikuspenik ez hartzea eta euregana azalpenak ematera inor ez azaldu izana "errespetu falta ikaragarria" dela adierazi zuten. Aldundiak eta Adif-ek bidea egokitzeko asmoa erakutsi zuten istripuaren ondorengo egunetan; arazoak, baina, luze iraun zuen.

LEINTZ GATZAGA
Autoak lasaiago ibiltzeko semaforoak sarreretan ►
Otsailaren 2an semaforoak jarri zituen Foru Aldundiak Gatzagako bi sarreretan. Hasierako asmoa zen proba moduan hilabetez jartzea, baina semaforoak hor daude oraindik. Semaforo horien helburua da Gatzagara doazen autoak seguruago eta lasaiago sartu eta irtetea.

Proba moduan egon zen hilabetean laranja kolorez egon ziren semaforoak, baina gaur egun, beste edozein semafororen moduan dabiltza.

ESKORIATZA
Bizilagun gehienak etxera bueltatu ziren ►
AHTko lanen ondorioz urtarrilaren 30ean Aranburuzabala kalean izandako lur-jausiko kaltetu gehienak etxera itzuli ziren otsailaren 10ean. Egun hartan kendu zituzten etxeetara ez sartzeko zigiluak. Hala ere, 26. zenbakiko lehenengo eta bigarren solairuetako eta 28. eta 30. zenbakietako lehenengo solairuetako bizilagunak beranduago bueltatu ziren. Kalte handienak jasan zituztenak Udalak egokitutako etxeetan egon ziren.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre

GOITB jada LTDn!
Egokitu zure antena GOITB-DIGITALA ikusteko.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 **EIBAR**
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60 | *antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

Mitarteguarai
Baserri turismoa eta taberna
Kalitate turistikoa
Zorionak, denoi!
• Batzar gela.
• Jangela.
• Logelak.
• Etxeko produktuen salmenta.
Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51

ARRASATE

Atzegiko kideek 50. urteurrena ospatu zuten ▲

Atzegi adimen urriko Gipuzkoako elkarteak 50 urte bete zituen. 1960an sortu zen elkartea, Donostian, eta gutxinaka Gipuzkoa osora zabaldu zen. Debagoienera Bergaratik sartu zen. Urtean zehar hainbat ekitaldi egin zituzten; besteak beste, Oñatin maiatzaren 15ean egin zen Atzegi Eguna. Martxoaren 25ean, bestalde, Txolarte Eguna egin zuten Arrasaten, maiatzaren 8an.

ELGETA

ZINEGOTZIEN SOLDATA, %60 MURRITZAGOA AURREKONTUETAN

Udalbatzak aho batez onartu zituen aurrekontuak: 2010erako 1.770.787 euro aurreikusi zituzten, 2009an baino 771.237 gutxiago. Hartutako erabakien artean, aipagarrienak izan ziren alkatearen soldata kentzea eta udal zinegotziena %60 murriztea.

BERGARA

ISTRIPUAK ETA AUTO ILARAK ERAGIN ZITUEN ELURTEAK

Otsailaren 11n izandako elurteak –neguko hirugarrena– istripuak eta auto ilarak eragin zituen Elorregin, bereziki Oñatirako noranzkoan. Kamioi bat eta auto bi gurutzatuta geratu ziren GI-2630 errepidean eta minutu askoan bi noranzkoak itxita egon ziren.

6.802

KILO MATERIAL

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatin Saharatarako 6.802 kilo material jaso zuten Nubi eta Iesbaa elkarteek. Gehiena, jatekoa: 6.594 kilo.

ARRASATE

'Simplemente' filmaren aurkezpena Amaian ◄

Jon Andueza zinema zuzendari arrasatearrak *Simplemente* izeneko dokumentala estreinatu zuen Amaia antzokian otsailaren 26an.

Filmeko protagonistak down sindromea duten hamar aktore dira eta helburua zen hamar neska-mutiko horien bizipenak, sentimenduak eta emozioak kontatzea. Ez zen lehen aldia Anduezak down sindromea dutenekin lan egiten zuena. Estreinaldia arrakasta borobila izan zen.

DEBAGOIENA

Tranbiarendako dirurik ez zegoela jakinarazi zuten ►

Otsailaren 20an Hotel Mondragonen egindako agerraldian Debagoieneko tranbia egiteko dirurik ez zegoela jakinarazi zuen Iñaki Arriola Garraio sailburuak. Tranbiaren proiektuak aurrekonturik ez zuela esan zuen, eta proiektu geldi zegoela gaineratu. Horren aurrean, honakoa adierazi zuen: "Ezinbestekoa da udalekin, Diputazioarekin eta Mankomunitatearekin, elkarlanean, erabakiak hartzea debagoiendarren garraioa hobetzeko".

OÑATI

'Jostailugilea' aurkeztu zuten Santa Anan ►

Oñatiko Ganbara Txikitxo eta Bergarako Orfeoi Txiki abesbatzek *Jostailugilea* ipuin musikatua antzeztu zuten otsailaren 14an Oñatiko Santa Ana antzokian.

Bi abesbatzetako neska-mutikoak izan ziren –guztira 90 neska-mutiko inguru– antzezlaneko protagonistak. Emanaldiaren hasieran marrazki bizidunetako abestiekin potpourria egin zuten eta gero jostailuen papera hartu zuten txikitxoek. Ederto ibili ziren.

ZURICH AUTOk eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:
Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:
Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA
Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA
Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...
Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20
Faxa: 943 78 31 36

ARRASATE
KRISITIK IRTETEKO ELKARLANA ESKATU ZUEN MARKEL OLANOK
Mondragon Unibertsitateak gonbidatuta, Markel Olano diputatu nagusia Arrasaten izan zen otsailaren 4an. Krisitik irten ahal izateko elkarlanean jardutea proposatu zuen Olanok. Gainera, kooperatibismoa elkarlanaren eredu moduan definitu zuen.

OÑATI
1.000 TXERRIKI-PINTXO BANATU ZITUEN MANKOMUNITATEAK
Debagoieneko IV. jardunaldi gastronomikoen aurkezpena egin zuen Mankomunitateak Oñatin. Aratusteak zirela aprobetxatuz, Basatxerrik egindako 1.000 txerriki-pintxo banatu zituzten: txistorrazkoak, odolkizkoak, trufazkoak eta patezkoak.

BERGARA
AITTOR ARANTZABAL ETA MIKEL GARAIONDO ASKE UTZI ZITUZTEN
Auzitegi Nazionalak eskatutako 50.000 euroko bermea ordaindu ondoren aske utzi zituzten Aittor Arantzabal eta Mikel Garaiondo Batasuneko kide ohiak. Arantzabal otsailaren 6an askatu zuten eta Garaiondo, berriz, otsailaren 8an.

ARAMAIO
ASIER AGIRRE
ALKATEA

"Alkateari eman nahi diote egurra, baina, benetan, herriari ematen diote"

ARRASATE
JUAN LUIS AREXOLALEIBA
EUSKALTZALEA

"Hausnarketa eta erronkak gaurkotu behar dituzte euskara elkarteek"

BERGARA ETA ARETXABALETA
Pintxo-poteoarekin bat egin zuten bi herriotan ▲

Arrasatekoaren arrakasta ikusita, Bergarako eta Aretxabaletako zenbait ostalarik pintxo-poteo ekimenarekin bat egitea erabaki zuten. Bergaran lehen eguenean aurreikusi baino jende gehiago ibili zen kalean. Hala adierazi zuen Juan Etxebarri tabernariak.

Aretxabaletan, bestalde, eguenean beharrean eguaztenetan hasi zuten ekimena. Aretxabaletan ere pintxo-poteoa egiteko helburua izan zen ordura arteko giro hotza berotzea.

DEBAGOIENA
E Planaren lehenengo lanak, begi-bistan ◄▲

Espainiako Gobernuak E Planaren bitartez sortu zituen Tokiko Inbertsio Fondoekin egin ziren lanek aldaketa handiak ekarri zituzten ibarreko herri gehienetako hirigintzaren sektorean. 10,7 milioi eurorekin ia 30 obra egin ziren eta gehienak aurrez zehaztutako epeen barruan amaitu ziren. Hau da, 2009. urtea amaitzearekin bat. Bigarren faseari ekin zioten otsailetik aurrera: 25 proiektu egiteko 6,8 milioi euro banatu ziren.

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua
•
Gazte menua
•
Karta
•
Bazkariak eramateko

Gabon jai zoriontsuak!

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33
943 79 42 56

PIENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Zorionak eta urte berri on!

DEBAGOIENA

IBARREKO 68 GAZTETXO ANDOAINGO PIANO JAIALDIAN

Andoaingo bosgarren piano jaialdian 876 gaztetxok hartu zuten parte. Debagoienak ordezkaritza zabala izan zuen: 68 gaztetxo. Bergarako, Arrasateko, Oñatiko eta Eskoriatzako musika ikasleak joan ziren Andoainera otsaileko lehen aste bukaeran.

BERGARA

96 HAUTETSIK ELKORO ASKA ZEZATELA ESKATU ZUTEN

1976az geroztik Bergarako 96 hautetsik Jose Luis Elkoro aska zezatela eskatu zuten. Otsailaren 20an ekitaldia egin zuten osoko bilkuren aretoan, eta 71 zinegotzi eta zinegotzi ohi batu ziren bertan. Horiez gain, beste 25ek ere bat egin zuten ekimenarekin.

ARAMAIO

IKER OLAZIREGI

ARRAGA AUZOKO ALKATEA

"Etxe gehiago ezin direnez eraiki, auzoa hutsik geratuko den kezka daukagu"

ARRASATE

RAFA URIBARREN

LANDA INGURUNEAREN GARAPENERAKO DIPUTATUA

"Baserritarrak euren jardunean egoteko bertako produktuak erosi behar dira"

DEBAGOIENA

Haizeteak kalte ugari eragin zituen han eta hemen ◄▲

Otsailaren 27ko gaua eta 28ko goizaldea izan ziren haizeteak –ziklogenesi hitza erabili zuten adituek– kalte gehien eragin zituen egunak. Bailara osoan zehar kalte handiak eragin zituen eta irudiotan dituzue horren adibideetako batzuk. Datu esanguratsu bat utzi zigun denboraleak: bost orduan 3.629 dei jaso zituen SOS Deietako telefonoak. Horietatik 1.332 dei gipuzkoarrek egindakoak izan ziren.

ANTZUOLA

Alfontso Ugarteren gaineko liburua aurkeztu zuten ▲

Alfontso Ugarteren (Antzuola, 1879) bizitza kontatzen duen liburua kaleratu zuten: *Alfonso Ugarte (1879-1937) eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian*. Antzuolan jaioa, gaztetan Lizarrara joan zen bizi izatera. Ainhoa Kaiero egileak honakoa esan zuen otsailaren 28ko aurkezpenean: "Lan handia egin zuen berrikuntzaren ideiak Nafarroan zabaltzen; elizetako musika errepertorioa aldatu zuen".



ARRASATE
ISAIAS CARRASCOREN USTEZKO HILTZAILEA ATXILOTU ZUTEN

Beñat Aginagalde (Hernani, 1984) atxilotu zuten Normandian (Frantzia), hain zuzen, Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi ohiaren eta Inazio Uria enpresari azpeitiarraren ustezko hiltzailea, poliziaren esanetan. 2008an erail zuten Carrasco tiroz, Arrasaten.

ARETXABALETA
11 MILIOI EUROKO UDAL AURREKONTUA ONARTU ZUTEN

Udal Gobernuak (Aralar) eta EAJk adostuta onartu zuten 10.959.195 euroko aurrekontua, (%37 murritzagoa). Inbertsio nagusiak bi ziren: kirol etxe berria (1.897.104 euro) eta Urkulu ingururako egitasmoa (1.092.431 euro).

OÑATI
PATXI VILA NAFARRA IZAN ZEN ONENA XIX. DUATLOIAN

Oñatiko Triatloi Taldeak antolatutako duatloian Patxi Vila izan zen azkarrena, eta emakumeetan Itsaso Leunda. Korrikako lehen saioan Galinier frantsesa izan zen nagusi, baina Vilak bizikletarekin hartu zion aurre eta aldeari eustea lortu.

ARRASATE
JOSE RIVIERE ERRETIRATUA

Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteko presidente izendatu zuten lau urterako Abaroako eta bailarako erretiratuen presidente zena.

ANTZUOLA
MINIMOETAN OINARRITUTA ONARTU ZUTEN AURREKONTUA

Udal Gobernuaren aldeko botoekin onartu zuten 3.613.504 euroko aurrekontua; gainerakoak abstenitu egin ziren. Inbertsioetako diru kopururik handiena eskolako aterpea konpontzeko aurreikusi zuten (819.000 euro).

ELGETA
Mundukide Fundazioak 10. urteurrena ospatu zuen ▼

Espaloia antzokian ospatu zuen Mundukidek 10. urteurrena, martxoaren 5ean. Hamar urteotako ibilbidea azaldu zuten bertan.

Fundazioko sortzaileak, kideak, boluntarioak eta kolaboratzaileak elkartu ziren ekitaldian, batzuk bertan eta beste batzuk bideo bidez. Mundukideko sortzaile Joxe Mari Sarasua omendu zuten; hilabete gutxi zela zendutakoa. Eta ospakizuna bukatzeko, Oreka TX taldeak kontzertu-ikuskizuna eskaini zuen.

ARRASATE
Bagara sortu zuten gizarte garapenean eragiteko ◄

"Bailarako gizarte garapenean eragiteko prozesua", izen horrekin sortu zuten Bagara, eta Amaia antzokian aurkeztu martxoaren 11n. "Euskalduntasunean, iraunkortasunean, autoeraketan eta elkartasunean oinarrituta Debagoienerako beste gizarte eredu bat sortu nahi duen prozesua"; hala izendatu zuten sortzaileek.

Aldundiko, udaletako eta beste hainbat erakunde, enpresa eta elkartetako ordezkariak izan ziren aurkezpen ekitaldian.

ARRASATE
Joseba Iglesias oroitzeko ekitaldiak egin zituzten ►

Martxoaren 1ean Udalatxen izandako istripuan hil zen 19 urteko Joseba Iglesias arrasatearra. Hutsune handia utzi zuen Arrasaten eta hainbat omenaldi ekitaldi egin zizkioten. Mendia eta gaztetxea ziren gazte arrasateararraren lekurik kuttunenak eta bertan egin zituzten oroitze-ekitaldiak. Bai Zabalaundin, bai Arrasateko gaztetxean jende asko elkartu zen, eta Iglesiasen gustuko ziren ekintzak antolatuta egin zuten egun pasa.

TXANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
Julian Uribeetxeberria Olalde
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Zorionak eta Urte berri on!

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54

Villar Ile apaindegia
Urte berri zoriontsuena opa dizuegu!
Olazar auzoa 9 • Tel.: 943 71 50 42 • ESKORIATZA

ARAMAIO

ORAINDIK ITXITA ARRASATE ETA ARAMAIO ARTEKO ERREPIDEA

Luis Alberto Zarrabeitia Arabako Errepide Saileko diputatua izan zen bisitan martxoaren 10ean, A-2620 errepideak 40 egun zeramatzan itxita. Bide alternatiboa izan zuen berbagai, eta Adifek egin beharreko lanek abendua arte iraungo zutela esan.

BERGARA

UNAI ONTSALO

PILOTARIA

Ontsalo Aresoko gazteak jantzi zuen Bergarako lau t'erdiko txapelketako lehenengo txapela. Final bizia jokatu zuen Yoldiren aurka (18-22).

BERGARA

H1! ALDERDIAK DEBAGOIENEKO EXEKUTIBA AURKEZTU ZUEN

Martxoaren 25ean aurkeztu zuen Hamaikabat alderdiak exekutiba. Juan Carlos Bengoa izendatu zuten bailarako koordinatzaile eta Amaia Intza koordinatzaileordea. Lau gai jarraitzeko asmoa zuten: krisia, garraio publikoa, hiltegia eta gizarte politikarako planak.

BERGARA

JESUS HERRADA

TXIRRINDULARIA

Caja Rural taldeko Herrada izan zen nagusi martxoaren 19ko Gorlako Txirrindulari Igoeran. 78 txirrindulari elkartu ziren eta esprintean gailendu zen Herrada.

OÑATI

MARKEL OLANORI ERREPIDE SAREA HOBETZEKO ESKAERA

Azpiegituretako diputatu Eneko Goiarekin batera izan zen Markel Olano ahaldun nagusia Oñatin martxoaren 17an eta errepide sarea hobetzeko eskatu zioten. Oñatik duen kokapenagatik "irtenbide egokiak topatzea ez dela erraza" esan zien Goiak.

BERGARA

Real-zaleak taldearen aurkezpena Agorrosinen ▲

Martxoaren 10ean aurkeztu zuten Bergarako Real-zaleak taldea, hain zuzen ere Realaren jarraitzaileen artean 108. taldea.

Agorrosinen egindako ekitaldian Realeko zuzendaritza batzordeko ordezkariak –tartean Juanjo Arrieta eta Aitor Mendibil– eta hainbat jokalari elkartu ziren: Mikel Gonzalez, Jon Antsotegi, Mikel Labaka eta Markel Bergara. Zaleek harrera beroa egin zieten Realeko kideei eta argazkiak ateratzen jardun zuten.

ARRASATE

Isaias Carrasco omendu zuten lehendakariarekin ◄

Isaias Carrascoren erailketaren bigarren urteurrena bete zen egunean, martxoaren 7an, omenaldia egin zioten. Patxi Lopez lehendakaria bera etorri zen ekitaldira, Alderdi Sozialistako beste hainbat ordezkarirekin –tartean Rodolfo Ares, Jesus Egiguren eta Manuel Huertas–, eta Carrascoren senideekin elkartu zen San Andres auzoan lore eskaintza egiteko. "ETA lehenbailehen buka dadin ahalegin guztiak" egiten dabiltzala esan zuen lehendakariak.

sane
fisioterapia zentroa

Ane Remedios Sanchez
Ane Coranti Gabilondo

Ibargarai 35
20570 Bergara
Tel.: 943 25 24 40
sanefisioterapia@hotmail.es

- Erreabilitazio uroginekologikoa eta biszeral-digestiboa.
- Fisioterapia orokorra.
- Erditze aurreko prestaketa.
- Erditze osteko errekuperazioa.
- Gimnasia abdominal hipopresiboa (GAH).
- Etxez etxezko fisioterapia.
- Indibaterapia.

LAGUN ARO (Zoru pelbikoaren tratamentuan) CMU-ren eskutik.

< HIZKUNTZA KUDEAKETA ERAGINKORRA LORTZEKO BIDERIK ZUZENENA

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA eta EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZEBITZUA

Urte berri on!

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

10

URTE

Martxoaren 31n bete ziren 10 urte GOIENAk sorrera batzarra egin zuela. Ibarreko euskara elkarte guztietako ordezkariak elkartu ziren Aretxabaletan.

BERGARA

DANOK BAT ELKARTEAK 75. URTEURRENA OSPATU ZUEN

1935eko martxoaren 17an sortu zuten Bergarako Danok Bat elkarte gastronomiko-kulturala. Ohorezko bazkideak omendu eta Juanma Saezek egindako ereserkia aurkeztu zuten martxoan. Ospakizun ekitaldiek ekainera arte iraun zuten.

ESKORIATZA

ARANBURUZABALA KALEKO HEGALA KONPONTZEKOTAN

Martxoaren 22an hasi zituzten Aranburuzabala kaleko 24-30 etxe blokeko atzeko hegala trinkotu eta egonkortzeko lanak. Lur-jausia izandako ezponda sarearekin babestu behar zuten eta haitz-ezpondari eusteko hormigoi armatuzko horma egin.

OÑATI

13 ARTZAIN BERRI GOMIZTEGIKO IKASKETAK BUKATUTA

Artzain direla adierazten duen makila jaso zuten Gomiztegi baserri-eskolan ikasketak egindako 13 lagunek, martxoaren 18an. Horietatik hamar Euskal Herrikoak ziren; emakumezkoa bakarra, eta makila jasotakoen batez besteko adina 27 urte.

DONOSTIA

The Wet Band eta Adi Holden taldeen diskoak kalean ◄▲

III. Danbaka musika lehiaketa irabazi zuten The Wet Band mutrikuarren –*Waterproof*– eta Adi Holden bergararren –*Adi Holden*– diskoak aurkeztu zituzten martxoaren 11n, Donostian. Mutrikukoek, gainera, bira hasi zuten orduan.

ELGETA

Istilu larriak izan ziren Aixolako zaintza etxean ▲

Elgetako Aixola zaintza espezializatuko zentroan istiluak izan ziren martxoaren 11tik 12ra bitartean. Ertzaintzak sei adin txikiko atxilotu zituen eta Bergarako ertzain-etxera eroan. Horietako bost gazte Zumarragako erreforma zentrora eroatea erabaki zuten.

ARAMAIO

II. Oroimenaren Eguna ospatu zuten ►

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak antolatuta II. Oroimenaren Eguna ospatu zuten martxoaren 13an, Aramaion. Frankismoaren biktimak eta faxismoaren aurkako borrokalariak omendu zituzten lehenengo, eta elkartekoek gogorarazi zuten gaur egungo zigorgabetasunaren eredua herriaren borondatearekin borrokatu behar dela. Herri bazkarian 80 bat lagun elkartu ziren, eta elkarretaratzea eginda eta kontzertua entzunda bukatu zuten ospakizuna.

Iturgintza - Berogintza

Laskurain

- Etxebizitzen zaharberritzeak
- Berogailuen instalazioak
- Aire egokitua
- Bainurako altzariak, iturrriak eta era guztietako osagarriak
- Edozein konponketa lan

Barrenkale 44 - Tel./Faxa:943 76 24 89 - Mugikorrak: 607 76 24 89 / 610 20 54 99

Covila
RIOJA VIÑA BAROJA
PAMPANO Rueda D.O (Verdejo)
MARQUÉS del PUERTO RIOJA
Luis Cañas
ALZOLA ura

ATXEGA ARDOAK
BERGARA
Gabon zoriontsuak, guztioi!
Amillaga 25 - Industrialdea - BERGARA
Biltegia: 943 76 27 76 / 943 76 38 52

Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

ARRASATE
RAMON ETXEZARRETA
EUSKOJAURLARITZAKO SAILBURUORDEA

"Egunkaria' prozesuan 'Egunkaria' bera ez ezik, euskara osoa egon da auzitan, neurri baten"



ARRASATE
JESUS UZKUDUN
LAN OSASUNEKO ARDURADUNA (CCOO)

"Kooperatibetako langileek ez dute lan gaixotasunen aitorpen eta eskubiderik"

ARRASATE
IMANOL URIA MURUA
KAZETARIA

"Loiolako mahaitik kanpoko faktoreek eragin zuten akordioa ez lortzea"

BERGARA

Gaztetxoendako diskoteka antolatu zuen Udalak ◄

Martxoaren 27an, Erramu Zapatua, egin zuten lehenengoz 12 eta 14 urte arteko gazteendako diskoteka, Bergarako Zabalotegi aretoan. Gazteria Kontseiluan zeuden adin tarte horretako ordezkariek proposatu zuten ekimena, eta Udalak onartu egin zien.

160 gaztetxo elkartu ziren DJ Fer eta DJ Angelen musikarekin dantzan egiteko, eta ikusita ondo funtzionatu zuela ekimenak, eskaintza finko moduan antolatzea erabaki zuen Udalak.

OÑATI

Munilla gotzaina bakearen erromesaldian izan zen ▲

Oñatitik Arantzazura urtero egiten duten bakearen aldeko erromesaldian Jose Ignacio Munilla Donostiako elizbarrutiko gotzainak hartu zuen parte lehenengoz. *Hitzarenak eta hitzekoak* pankartaren atzean ia 6.000 lagun elkartu ziren martxoaren 27an.

Axolagabekeriak, iraunkortasunik ezak eta bizitza bikoitzak Jainkoaren hitza gizakiarengan ernetzen eragozten dutela iragarri zuen Munilla gotzainak, Arantzazura iritsitakoan.

Maulanda
merenderoa
Urte berri on!
Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

BERGARAKO
IKASTETXE
PUBLIKOAK
anitza
integratzailea
euskalduna
dohaina
Haurreskola
(0-2 urte)
Tel: 943762596
bergara.bergara@haurreskolak.net
San Martin
Agirre
HAUR HEZKUNTZA (2-6 urte)
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)
Tel.: 943 76 21 47/ 688666943
012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola
Ipintza
DBH (12-16 urte)
BATXILERGOA (16-18 urte)
Giza eta Gizarte Zientziak- Zientifiko Teknologikoa
Tel.: 943 76 31 42 / 43
012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintza/
M.Altuna
LANBIDE HEZIKETA
-Erdi mailako Zikloak (16 urtetik aurrera)
-Goi mailako Zikloak (18 urtetik aurrera)
• Mekanika
• Elektrizitatea
• Administrazioa
-Eskaintza partziala
-Zikloetan sartzeko kurtsoa
-Graduondoa
Tel.: 943 76 24 91/ 76 38 40
imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com
HHI-EPA
(18 urtetik gorakoentzako)
-Alfabetizazioa (etorkinentzako)
-Kultura orokorra
-DBH
-Unibertsitatean sartzeko kurtsoa
-Euskara, Ingelesa eta Frantsesa
-Informatika
Tel.: 943 76 44 52
012266aa@hezkuntza.net
goieskola
debagoieneko euskal
eskola publikoa
San Martin - Ipintza - M. Altuna - HHE-EPA - Haurreskola

150

TONA

Apirilean eman zuten aditzera Debagoienetik bidalitako elkartasun kontainerrak Haitira iritsi zirela. 25 tonako sei kontainer elikagai bidali ziren.

BERGARA

MIKEL ZUBIMENDI ASKE, 50.000 EUROKO FIDANTZA ORDAINDUTA

Apirilaren 15ean askatu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak bergararra, 50.000 euroko fidantza ordaindu eta gero, eta politikan aritzeko debekuarekin. Batasuneko Mahai Nazionala berritzen ari zela egotzita atxilotu zuten.

DEBAGOIENA

AHT-REN AURKAKO KALEJIRA, MENDI MARTXA ETA BAZKARIA

Lurra, herrien etorkizuna: AHT gelditu lelopean aldarrikapen eguna egin zuten hilaren 25ean Arrasaten eta Aramaion. AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta, mendi martxa egin zuten AHTk eragindako kalteak ikusteko, eta kalejira eta herri bazkaria ere bai.

BERGARA

JARDUNEK 20. URTEMUGA HERRITARREKIN OSPATU ZUEN

Apirilaren 24an ospatu zuen Jardun euskara elkarteak 20. urteurrena. Herritarrekin ospatu nahi izan zuen, gainera, eta, horretarako, hainbat ekitaldi antolatu zituen. Besteak beste, herri bazkaria egin zuten Artatse elkartean.

DEBAGOIENA

Mari Sol Ramos eta Maria Jose Gil urrearekin ◄▼

Arrasateko eta Oñatiko bi atleta horiek beteranoen Espainiako maratoi erdiko txapelketan lehiatu ziren eta biak ala biak urrea jantzita itzuli ziren etxera, euren kategorietan.

Guztira 3.000 atleta izan ziren txapelketan gizonezkoetan eta emakumezkoetan. Euskal Herritik 36 joan ziren. Maria Jose Gilek ordubete eta 55 minutu behar izan zituen proba egin eta urrea eskuratzeko; Mari Sol Ramosek, berriz, 1:25:15.

ARAMAIO

Agirre Aramaioko alkatea epaitu egin zuten ▲

2007ko irailean AHTren gaineko galdeketa egiteagatik epaitu zuten. Asier Agirrek epaiketan gogora ekarri zuen herritarrek sustatutako galdeketa izan zela eta Udalak ez zuela ez diruz ezta baliabidez ere lagundu.

"Epaiketa politikoa izan da; herritarrek aukera izan beharko lukete horrelako proiektuen aurrean iritzia emateko", esan zuen Aramaioko alkateak Gasteizko zigor arloko bigarren epaitegian egindako epaiketaren ostean.

BERGARA

Permuta urtebetez atzeratuta ◄

Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko trukea urtebete atzeratzea erabaki zuen UNED-Bergara Patronatuak apirilaren 9an egindako batzarrean. Erabakia desegokia iruditu zitzaion Udalari eta 100 bat herritarren eta Udaleko indar ia guztien –EAJ izan ezik– babesarekin honako Aldundiari eskatu zion: trukea iraila aurretik egiteko; baita Batzar Nagusiei babesa ere. Abenduan oraindik ere trukea egiteke zegoen.

urrats Podologia Zentroa

Zorionak eta Urte Berri On!

Bidebarrieta 20 OÑATI Tel.: 943 53 36 37
Ordutegia: 09:30etik 13:30era - 15:30etik 20:00etara
podourratsoinati@gmail.com

- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

BITAOÑI S.L.

Mekanizatua
•
C.N.
•
CAD-CAM

Zorionak eta urte berri on!

Zubillaga industrialdea 20 • OÑATI • Tel.: 943 71 60 44 • Faxa: 943 78 29 39 • Mobila: 639 659 446 • bitaoni@telefonica.net

BERGARA

ANTZOKIARI BURUZKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA BUKATU ZEN

Erabilera askotariko antzokiaren funtzio eta antolaketa fisikoa diseinatzeko prozesu parte-hartzailea apirilean bukatu zuten. Emaitza: agintaldia amaitu aurretik proiektua prest egoteko konpromisoa hartu zuen Udalak. Jarraipen batzordea eratu zen.

ESKORIATZA

ARANBURUZABALAKO ZORTZI FAMILIA ETXERA ITZULI ZIREN

Urtarrilaren 31ko lur-jausiaz geroztik etxetik kanpo egon ostean, hilaren 30ean etxera itzultzeko aukera izan zuten Aranburuzabala kaleko zortzi familiak. Ordura arte Jaurlaritzak eta Udalak lagatako etxeetan egon ziren gehienak.

OÑATI

KALEETAN DAUDEN DIKTADURA SINBOLOAK KENTZEKO ERABAKIA

Herriko kaleetan barrena zeuden diktadura garaiko sinboloak kentzeko erabakia hartu zuen Udalak. Inbentarioa egin eta gero, garai hartako ikur gehienak Errekalde auzoan (hamar), Moiua kalean (lau) eta Kale Zaharrean (lau) zeudela jakinarazi zuten.

ARANTZAZU

Gipuzkoako batzarkideak Arantzazun izan ziren ▼◄

Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romero eta batzar orokorretako mahaikideak Arantzazun izan ziren hilaren 16an. Arantzazun egiten den lana bertatik bertara ezagutu eta, bide batez, lan hori gipuzkoarrei ezagutaraztea izan zen bisitaren helbu nagusia. Horretarako, Baketik eta Arantzazu Gaur fundazioko ordezkariekin elkartu ziren.

ARAMAIO

Maider Undak brontzezko domina ekarri zuen ▲

Brontzezko domina ekarri zuen Maider Unda kirolariak apirilaren 13tik 18ra arte Azerbaijango hiriburu Bakun egin zen Europako borroka txapelketatik, 72 kiloko emakumezkoen mailan. Hala, lehenengoz igo zen podiumera oletarra txapelketa horretan. Undak Europako zazpi txapelketetan hartu du parte, 2001ean hasi eta aurten arte. Aurtengoa kontuan hartu barik, 2002an lortu zuen posturik onena: bosgarrena, hain justu ere.

BOLU
SUKALDEAK

>Gremioen koordinazioa
>Aurrekontua konpromiso barik
>Horma armairuak

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02.
bolusukaldeak@euskalnet.net
www.euskalnet.net/bolusukaldeak

ARETXABALETA

BEÑAT ARNAIZ ATLETA, ESPAINIAKO TXAPELDUNORDE

Aretxabaletako atleta Segovian izan zen hilaren 10ean, Lagunak-Saltoki taldearekin Espainiako duatloi txapelketan lehiatzen. Nafarroako taldea bigarren sailkatu zen, Club Triatlon Segovia 2016 taldearen atzetik .

ARETXABALETA

ENPLEGU PLANA ABIAN JARRI ZUEN ARETXABALETAKO UDALAK

Udalak martxoan onartu zuen Enplegu Plana eta hura koordinatzeko eta aurrera eramateko enplegu teknikaria kontratatzeko prozesua apirilean abiarazi zuen. Planak hiru ardatz ditu: kontratazioa, formazioa eta ekintzaile izaeraren ingurukoa.

BERGARA

ELIXABETE GARITANO

ARCELOR-EKO GIZA BALIABIDEAK

"Emakunderen saria errekonozimendua eta konpromisoa da guretzako"

OÑATI

LANDER BELOKI

ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO DEKANOA

"Enpresa eta erakundeetatik oso gertu dagoen fakultatea gara"

BERGARA

MILA ELORTZA

AHT GELDITU! ELKARLANA TALDEKO ELEDUNA

"AHTren aurka egiten du informazio on eta benetakoa daukan guztiak"

ANTZUOLA

Giro ona Antzuola-Aiherra urteurren jaian ▲

Giro onean amaitu zituzten, apirilaren 18an, Antzuolaren eta Aiherraren senidetzearen 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Antzuolatik 80 bat lagun joan ziren Aiherrara bi solairuko autobusean. Giro ezin hobean igaro zuten eguna, eta horren adibide da goiko irudia; trontzan ageri dira Antzuolako eta Aiherrako alkateak. Horrekin batera, ekitaldi sinbolikoa, bazkaria... izan zituzten.

ELGETA

Ozkarbi mendi taldeak lehen ibilaldia egin zuen ▲

Ozkarbi talde sortu berriaren lehenengo mendi ibilaldian 16 lagunek hartu zuten parte. Apirilaren 18an egin zuten ibilaldi hori eta Araotz -Orkatzategi-Andarto-Araotz ibilaldia egin zuten; irudia Santakurtz ermitan hartutakoa da. Urtean barrena irteera gehiago ere egin dituzte. Taldean lan egiteko interesa duenak *ozkarbi.menditaldea@gmail.com* helbidera idatz dezake.

Lenizek urte berri ona opa dizue!

LENIZ ESKORIATZA

SUZUKI

KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10 Posta-e: *rleniz@euskalnet.net*

ESKORIATZA

DOLORES IBARRURI IZAN ZUTEN GOGOAN ERAKUSKETA BATEKIN

Dolores Ibarruri 'La Pasionaria', su voz sigue viva egin zuten Ibarraundi museoan. Ezker Batua-Berdeak taldeak antolatu zuen, Udalaren laguntzarekin, eta langile-borrokaren ikur izan zen emakumearen 50 argazkik osatu zuten.

BERGARA

JUAN KRUZ MENDIZABAL

PASTORALTZAKO BIKARIOA

Hilaren 15ean Gipuzkoako Pastoraltzako bikario izendatu zuen Jose Ignacio Munilla gotzainak Juan Kruz Mendizabal Bergara eta Antzuolako parrokoa.



ARRASATE

Ekin elkarteko sortzaileak omendu zituzten ▲

Ekin Emakumeak elkarteak 15 urte bete ditu aurten, eta urteurren horretako ekitaldi nagusia, eta seguruenik, hunkigarriena, egin zuten hilaren 30ean. Hain justu ere, Ekin sortu zuten zazpi emakumeak omendu zituzten: Marilu Ajuria, Lurdes Azkarate, Marije Salterain, Arantxa Sanchez, Ana Untzalu, Lurdes Uralde eta Bittori Etxebarria.

Horrekin batera taloak egon ziren, kantaldiak eta ume eta helduendako tailerrak.

OÑATI

Ganbara Txikik Habanera lehiaketa irabazi zuen ◄

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatzako lagunak pozik eta sariarekin etorri ziren apirilaren 23tik 25era bitartean Torreviejan jokatutako lehiaketatik. Izan ere, habanera eta polifonia lehiaketan lehenengo postua eskuratu zuten oñatiarrek. Epaimahaiak azpimarratu zuen talde orekatua dela, afinazio ona dutela eta eszenaratze polita. Ganbara Txikirekin batera, Espainiako hiru talde eta Kubako Cantoria Solfa taldea lehiatu ziren.

OÑATI

Sari bikoitza Etxegoienentzat ▲

Fermin Etxegoien oñatiarrak Espainiako Kritikaren saria lortu zuen *Autokarabana* eleberriarekin (Pamiela) apirilean. Espainiako literatura kritikarien elkarteak euskarazko narratiba lanik onena zela erabaki zuen hilaren 17an.

Era berean, euskarazko Euskadi literatura saria ere jaso zuen kazetari eta idazle oñatiarrak eleberri berarengatik azaroaren 16an Donostiako Kursaalen egindako ekitaldian.

ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Periodontziaeta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Urte berri on!

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

ARAMAIO
ARAMAIO, KOADRILA ARTEKO BERTSO TXAPELDUN
Aramaioko bertsolariak txapeldun izan genituen Arabako koadrila arteko txapelketan. Txapelketa osoan maila bikaina azaldu ondoren, maiatzaren 8ko finalean Kakiturri-Ehariko taldeari irabazi zioten aramaioarrek, Gasteizko Landatxo pilotalekuan.

DEBAGOIENA
SEKTORE PUBLIKOAN GREBA MAIATZAREN 25EAN
Greba egin zuten sektore publikoan maiatzaren 25ean, Zapateroren Gobernuak krisiari aurre egiteko hartutako neurrien kontra egiteko. Grebak jarraipen zabala izan zuen hezkuntzan eta udaletan, eta txikiagoa osasun arloan.

ARETXABALETA
JESUS ORTIZ DE URBINA
PARROKOA
Jesus Ortiz de Urbina Leintz pastoral barrutiko parrokoak 50 urte bete zituen abade. Aretxabaletan zazpi urte daramatza parroko.

OÑATI
GOTZON OSINAGA
TXISTULARIA
Gotzon Osinagari Euskal Herriko txistularien zilarrezko domina eman zioten maiatzaren 8an. Udal txistulari moduan 29 urte egin zituen Osinagak.

ARETXABALETA
ANTXON PEREZ DE CALLEJA
EKONOMIALARIA
"Benetako aberatsek ez dute errenta aitor- penik egiten, eta horre- la jarraituko dute"

ARETXABALETA
Loramendiren denboraldi berria ▲

Hausnarketa sakona egin ostean, ibilbide berriari ekin dio Loramendi elkarteak. Aurkezpen jaia egin zuten maiatzaren 7an, udaletxe zaharreko atarian, elkarteak egoitza duen eraikinean. Hiru ildo zehaztu dituzte Loramendikoek: euskara, kultura eta aisialdia.

ARETXABALETA
Ainhoa Sanchez, Miss Euskadi ▶

Ainhoa Sanchez Miss Euskadi izendatu zuten Barakaldoko BECen, maiatzaren 8an. Aurretik, Miss Araba titulua eskuratu zuen Sanchezek. 1,80 metroko altuera eta 90-61-93 neurriak ditu 23 urteko gazteak. ETB2ko *Uyyy* saioan eta Argiñanorekin ikusi dugu urtean zehar.

HORTZ KLINIKA
UARKAPE
Nicolas Bermejo doktorea

Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista
Urte berri on!

ARAMAIO

JON AGIRRE ASKATZEKO ESKATU ZUTEN ARAMAION

Jon Agirre presoa aska dezatela eskatu zuten Aramaion, bere herrian, maiatzaren 15ean. Aramaion egindako manifestazioan, presoek eta bereziki Agirrek bizi duen egoera salatu zuten. 29 urte darama preso Agirrek.

ARRASATE

NEVER SURRENDER TALDEARI ERASOA GASTEIZEN

Never Surrender taldekoei erasoa egin zieten *skinhead* itxurako 15 bat gaztek Gasteizen, gaztetxean apirilaren 30ean egindako emanaldiaren ostean. Arrasatearrek hainbat kolpe jaso zituzten eta erasoaren ostean salaketa jarri zuten.

BERGARA

JOSE LUIS ELKORO ALDEKO PLATAFORMA

Jose Luis Elkoro Libre plataforma sortzeko dei irekia egin eta hainbat herritar batu ziren maiatzaren 20an Bergaran. Bergarako alkate ohiaren askatasuna lortzea zen helburu nagusia eta hainbat ekitaldi antolatu zituen plataformak.

ELGETA

Ibilbide tematikoa Intxortan ◄

Intxortako ibilbide tematikoa inauguratu zuten maiatzaren 23an Elgetan. Besteak beste, Debagoienean memoria historikoa berreskuratzea da helburuetako bat. Aspaldiko proiektua zen, eta, Intxortaren magalean gertatutako ibilbide tematikoaz gain, Espaloia antzokian harreragunea jarri dute. 12.000 biktimaren izenak eta 800 bat argazki jaso dituzte arduradunek. Erantzun bikaina jaso du ibilbide tematikoak.

DEBAGOIENA

Goiena Telebista, Lurreko Telebista Digitalean ►

Goiena Telebista Lurreko Telebista Digitalean ikus daiteke joan den maiatza ezkero. Etxeko lanak azkar egin zituen Goiena Telebistak: 2009ko azaroan hitzarmena sinatu zuen Jaurlaritzarekin, eta, horren bidez, 52. kanalaren esleipena ofizialdu egin zen. Urtarrilean egin zen telebista kate gehienen itzalaldi analogikoa eta otsailean bere seinalea hedatzeko antena jarri zuen Goiena Telebistak Muru gainean. Esan bezala, 52. kanalean sintonizatzen da.

ARRASATE

Joxepa Arregi ezagunari agur ▲

Joxepa Arregi *Garratz* presoaren ama eta presoen aldeko mugimenduko pertsona ezagguna hil zen maiatzaren 24an, 91 urte zituela.Haren aldeko omenaldia egin zuten maiatzaren 26an eta Etxeraten X. Batzar Nazionalean ere gogoan izan zuten, azaroaren 7an Arrasaten. Joxepa Arregiren errautsak zabaldu zituzten Zabalaundin, uztailaren 11n. Ehun lagun inguru batu ziren eta *Eusko gudariak* abestu zuten amaieran.

PINTURAS URBIA MARGOAK

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Zubillaga Auzoa, 34-A (Oñati) • Tel. : 652 71 0837 / 943 71 62 15 • *pinturas_urbia@yahoo.es*

BEHI-ALDE ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Mondragon

urte berri on!

GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON

Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15

11.000

IBILGAILU

11.000 lagunek darabilte egunero AP-1 autobidea, Eibar eta Gasteiz arteko autobidea osorik zabaldu zutenetik urtebete bete zenean, hain zuzen.

ARRASATE

MARKULETEKO LASA ENPRESA ITXI EGIN ZUTEN, KRISIAK JOTA

Arrasateko Lasa enpresa itxi egin zuten maiatzean. Markuleteko egoitzan 25 langilek zihartuten eta enpresak arazoak zituen aspalditik, ELA sindikatuak salatu zuenez. Krisi ekonomikoak gure ibarrean gogor kolpatutako beste enpresa bat.

BERGARA

UDAL AURREKONTUA ONARTU ZUEN GOBERNU TALDEAK

Bergarako udal aurrekontua onartu zuten maiatzaren 17an: aurreko urtean baino %19,6 txikiagoa, 24,6 milioiko aurrekontu bateratua onartu zuen Udal Gobernuak. EA abstenitu egin zen eta EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten.

ELGETA

ELGETA TXURI-URDIN: REALAREN LAGUNARTE BERRIA

Realak lagunartea sortu zuen Elgetan: Elgeta Txuri-urdin. Aurretik bazegoen Athleticen lagunartea Elgetan eta orain Realzaleen txanda etorri da. 34 bazkide dira taldean eta Patxi taberna da zaleon egoitza, oraingoz.

BERGARA

UDANAN IRABAZI OSTEAN, ZABALETA GORLAN NAGUSI

Aitor Zabaleta bergarar gidaria azkarrena izan zen Udanan jokatutako igoeran. Era berean, Gorlan jokatutako proban nagusitu zen maiatzaren 15ean. Angela Vilariño izan zen bigarrena euripean jokatu zen Gorlako proban.

ARRASATE

'80 egunean', Mariasun Pagoagarekin ◄

80 egunean filma aurkeztu zuten maiatzean. Ikusleek eta kritikak harrera beroa eskaini zioten Mari Asun Pagoaga protagonista duen filmari.

Arrasatearrarekin batera, Itziar Aizpurua aktorea da beste protagonista nagusia. Adineko bi emakumeren arteko harremana kontatzen da filmean. Mariasun Pagoagaren lehenbiziko zinemako lana zen. Uztailean, *Bi anai* film luzea grabatzen amaitu zuen.

ARAMAIO

Patxi Uribarren, euskaltzain oso ►

Patxi Uribarren euskaltzain oso izendatu zuten Aramaion maiatzaren 28an. Uribarrenek Henrike Knörr zenaren lekua hartu du eta euskalgintzako eta kultura arloko aurpegi ezagun asko batu ziren Aramaioko ekitaldian. Era berean, herritar ugariren babesa jaso zuen Uribarrenek. *Zirelako gara, garelako izango dira* izenburupean, belaunaldien arteko transmisioaren garrantziaz jardun zuen euskaltzain berriak sarrera hitzaldian.

ARAMAIO

Koikili, Aramaioko neska-mutikoekin ▲

Zuiako Koadrilako euskara sailak antolatuta, Koikili Lertxundi Athleticeko jokalaria Aramaion izan zen maiatzaren 20an. San Martin eskolako eta Legutioko eskolako umeekin eman zuen goiza eta autografo pilo bat sinatu zien gaztetxoei.

ARRASATE

LUENGO FAMILIARI OMENALDIA EGIN ZIOTEN

Arrasateko Luengo familia kirolariari omenaldia egin zioten Arrasaten joan den maiatzaren 15ean. Luengo familiako kide askok kirol talde ezberdinetan hartu dute parte azken hamarkadetan.

ARETXABALETA

UDA FUTBOL TALDEA MAILAZ JAITSI ZEN

Salvatierraren kontra 0-0 egin ostean Aretxabaletak kategoria galdu zuen. Igor Gordobilen mutilek agur esan zioten hirugarren mailari. Ohorezko erregional mailara itzuli ziren aretxabaletarrak.

ANTZUOLA

Mundumira arrakastatsua Antzuolan ►▲

Mundumira jaialdiak erantzun bikaina jaso zuen Antzuolan maiatzaren azkenetan. Antolatzaileen aurreikuspenak bete egin ziren eta 20.000 lagun inguru batu ziren Antzuolan. Herritarren inplikazioa eta laguntza azpimarratu zuen antolakuntzak. Mundumira jaialdiaren seigarren ekitaldia izan zen aurtengoa. Bartzelonako Ojos de Brujo musika taldearen kontzertua izan zen ekitaldi jendetsuena.

BERGARA

SINDIKATUAK LAN HITZARMEN "DUINAREN" ALDE

Metal arlorako lan hitzarmen "duina" aldarrikatzeko greba egin zuten ekainaren 4an metalgintzako ibarreko hainbat enpresatan, ELA eta LAB sindikatuek deituta. Tartean, mobilizazioak ere egin zituzten; adibidez, Bergaran.

DEBAGOIENA

HAINBAT ZINEGOTZI ITALIAN, ZABOR KUDEAKETA IKUSTEN

Debagoieneko ezker abertzaleko, EAJko eta PSE-EEko zinegotziak Italian izan ziren ekainaren bigarren astean hango zaborren moduak gertutik ezagutzen. Atez ateko batze sistema dela gakoa konbentzituta bueltatu ziren bidaiatik.

DEBAGOIENA

UDALBILTZARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO EKIMENAK

Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari lelopean elkarretaratzeak egin zituzten Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan, besteak beste, ekainaren 12an. Udalbiltzaren aurkako epaiketa salatzea zen protesten helburua. Udalbiltzaren aldeko mozioak ere onartu zituzten.

DEBAGOIENA

ANBULATORIOAK ZAPATUETAN IXTEAK ERAGINA IBARREAN

Ekainaren 19an sartu zen indarrean anbulatorioak zapatuetan ixteko Osakidetzak hartutako erabakia. Bergaran izan ezik, ibarreko beste herrietan itxi egin zituzten. Handik aurrera Eskualdeko Ospitalean artatu zituzten gaixoak.

25

URTE

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak 25 urte bete zituen. Ekainaren 27an ospatu zuten urteurrena, kiliki eta erraldoi kontzentrazioa eginda.

BERGARA-ANTZUOLA

Bergara-Antzuola arteko AHTren lehen harria ▶

80 kilometro izango ditu AHTren Gipuzkoako zatiak, eta horietatik lau kilometro (3,9 kilometro tunelean) Bergara eta Antzuola artekoak izango dira. Tarte hori Jaurlaritzak egingo du.

Bada, tarte horren lehen harria ekainaren 14an jarri zuten Jaurlaritzako ordezkariek Kukubaso mendian. Bestelako agintarien artean, Markel Olano diputatu nagusia eta Mikel Cabieces Espainiako Gobernuaren ordezkaria izan ziren ekitaldian.

BERGARA

Elkororen aldeko martxa egin zuten, Palentziara ▶

Ekainaren 6an Jose Luis Elkororen aldeko martxa egin zuten 300 bat lagunek, Dueñasera, *Jose Luis Elkoro Libre!* plataformak deituta. La Moraleja espetxeraino ibilbidea egin zuten, erraldoiek, trikitilariek, ikurrinek eta Gaztelako komuneroen banderek lagunduta.

Pankarta Agurne Barruso Bergarako alkateak, PSE-EEko zinegotzi izandako Antonio Herzogek eta EAko Juan Mari Garitanok eraman zuten.

ARRASATE

Malen Ruiz de Azuak marka ezarri zuen: 3:50 ▶

Kadete mailako Arrasateko atletak bere marka hautsi eta 3:50 metrokoa ezarri zuen Anoetan, maiatzaren 29-30eko asteburuan, Gipuzkoako txapelketan.

Estatu mailan Arrasateko taldeak lortu zuen nazional mailako lehenengo errekorra izan zen Malen Ruiz de Azuak lortu zuena. Salto horrekin zilarrezko domina eskuratu zuen pertika jauzilari arrasatearrak. Jonathan Perezen aginduetara lan egiten du Ruiz de Azua atletak.

Fruteria Cruz Hnos Fruitategia

Zorionak eta urte berri on!

08:30 - 20:30
eguerdian zabalik!

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92
BERGARA

EAJ PNV

ETORKIZUNEKO Debagoiena eraikitzen.



ELGETA

TXOMIN DE VEGA

BTT-N BIGARREN

La Arboledan –Bizkaia– jokatutako Euskadiko txapelketan bigarren zen txirrindulari elgetarra. Hiru urte lehenago ere eskuratu zuen titulu bera.

BERGARA

'ZUTIK EUSKAL HERRIA' AURKEZTU ZUTEN

Euskal Herriaren egoeraren eta euskal prozesu politikoaren azterketa egin ostean, ezker abertzaleak Zutik Euskal Herria adierazpenean batu zituen ondorioak. Bada, ekainaren 2an eman zuten ondorioon berri, Santa Ana parkean.

BERGARA

MONUMENTU IZENDATUTA SAN PEDROKO BI ERRETAULA

Jaurlaritzako Kultura Sailak San Pedroko erretaula nagusia eta sakristian dagoen San Miguelen poliptikoa monumentu izendatzea onartu zuen. Deklarazio horrekin batera, erretaulondako babes erregimen bat ere ezarriko dute.

DEBAGOIENA

Realeko eta Baskoniako jokalariak gurean ▼◄

Lehen mailara igotzea lortu zuen Realak hiru urteren ostean, eta zaleen babesa eskertzeko Gipuzkoan barrena egin zuten ibilaldiak Debagoienean ere izan zuen geldialdia: Oñatin eta Bergaran izan ziren Realeko jokalari, entrenatzaile eta zuzendariak ekainaren 17an.

Bestalde, Caja Laboral Baskoniak ACB liga irabazi izana ospatzeko Arrasaten izan ziren kide guztiak, ekainaren 17an, Euskadiko Kutxaren egoitza aurrean.

OÑATI

'Patroiarekin dantzan' DVDa argitaratu zuten ▲

Kepa Aranburu eta Aitor Perostenea oñatiarrek (argazkian ageri dira biak) beste herrikide askoren parte-hartzearekin batera egindako *Patroiarekin dantzan* dokumentala argitaratu zuten ekainaren 4an Oñatin.

2008ko Corpus jaietan hartutako irudiekin eta elkarrizketekin osatutako DVDa da. 55 minutu irauten du.

400 kopia atera zituzten eta 10 eurotan salgai ipini, ekainaren 5eko asteburuan.

JUBAR®
ATEAK, S.L.

DQ certificación
E.R. 02/518
ISO 9001/00
ACREDITADO POR ENAC

Urte berri on!

Ate sekzionalak





Pertsianak

Oinezkoentzako

kaleak babesteko

- Garajeko ateak
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko aginte tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzakosistema automatikoak



Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@euskalnet.net
www.jubarateak.com

BERGARA

ALDUNDIAREN PLANAK AURKEZTU ZITUZTEN OLANOK ETA GOIAK

Markel Olano eta Eneko Goia Bergaran izan ziren, *Gipuzkoako Foru Aldundia Zure Herrian* ekimenaren barruan. Iragarri zuten diru nahikoa badago 2011n onartuko dutela San Pedroko obra eta UNEDeko permutaren erabakia 2011n ere hartuko dela.

OÑATI

'IKUSTEN?' TURISMO KANPAINA AURKEZTU ZUTEN

Bailarako, Euskal Herriko eta Nafarroako turistengana heldu guran, udako turismo kanpaina aurkeztu zuten. Promozio bereziak egin zituzten; esaterako, sarrera baten truke bi, autobus zerbitzu bereziak eta bisita bereziak kobazuloetara.

DEBAGOIENA

Askotariko erantzuna izan zuen greba orokorrak ▲

Ekainaren 29rako EL, LAB, ESK, STEE-EILAS, HIRU, EHNE eta CCOO sindikatuek deitutako greba ez zuen erantzun bera izan sektore guztietan. Esaterako, Mondragon Taldeko enpresa gehienek normal egin zuten lan; dena den, gainerakoen erantzuna bestelakoa izan zen. Esaterako, Arrasaten enpresa gehienetan egin zuten greba, eta Bergaran eta Oñatin enpresa handienek ateak itxi zituzten. Baita Elgetan ere. Antzuolan denetarik izan zen.

ARRASATE

Auto elektrikoaren prototipoa aurkeztuta ▼

City Car modelo berria aurkeztu zuen Mondragon Automocionek Garia Berrikuntza Gunean ekainaren 21eko astean. *Auto elektrikoa/mugikortasun iraunkorra* izenburuarekin egin zuten aurkezpena.

Mondragonek asmatutako hiriko ibilgailu elektrikoak 45 kw-ko potentziako motorra dauka, 5 segundoan 0tik 50 km/h abiadurara iristen da, 105 km/h gehienezko abiadura hartzen du eta 80 kilometroko autonomia du.

ARRASATE

Dragoi berria estreinatu zuten sanjuanetan ▲

Arrasateko ikur den dragoi berria ekarri zuten 2010eko sanjuanetarako. Kukubiltxok egindakoa, Santa Barbara parkeko dragoian inspiratuta egin zuten. Eta enpresa bizkaitarraren helburua zen arrasatearren nortasuna islatzen duen dragoia egitea. Bost metro pasa ditu dragoiak muturretik buztanera.

Berritasunen artean, sistema piroteknikoa gehitu zioten dragoiari eta horri esker su koloretsu eta fantasiosoagoa botatzen du.



Gemes

Sistema berri bat azazkalak jasteko

Jandako azazkalak

Ezkonberrien amabitxien... eskuak

Esmalte iraunkorrez egindako manikurak

Apaindutako pedikurak

Gabonetarako esku apainduak

Beti zuengandik hurbil!

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18 **ARETXABALETA**

ARAMAIO

ELKARTASUN JAIALDIA OBENA BASERRIAREN ALDE

Suak Aramaioko Oleta auzoko Obena baserria erre eta hiru astera jaialdia antolatu zuten oletarrek Obenakoei laguntzeko. Ekainaren 27an egin zuten eta 200 bat lagunek bat egin zuten jaialdiarekin. Dirua batu zuten apustu eta txosnaren bitartez.

LEINTZ GATZAGA

PILOTALEKUA KONPONTZEKO PROIEKTUA ONARTU ZUTEN

Herriko pilotalekua konpontzea onartu zuten aurrekontuetan. 110.000 euroko inbertsioa aurreikusi zuten horretarako. Udalaren asmoa zen lehen goiko zatia egin zuten neurrian, orain "beheko zatia goikoa dagoen moduan uztea".

BERGARA

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK SEMINARIOA TRUKATZEAREN ALDE

Bergarako Errege Seminarioa eta Arrizuriaga jauregia trukatzeko erabakia aurtengo iraila baino lehen har dezala eskatu zioten Foru Aldundiari Gipuzkoako Batzar Nagusiek. EAJk eta Hamaikabatek kontra bozkatu zuten eta gainerakoek alde.

ARRASATE

XABIER ZUBIZARRETA / PELLO URIZAR

EZKER ABERTZALEA/EA

"Akordioa soilik biren artean egitea baino hobe da beste alderdien babesa ere lortzea"

ESKORIATZA

ZUBIATE LABEA ATZERA ERE ZABALDU ZUTEN

Ekainaren 28an inauguratu zuten Zubiate labea, ehun urtean itxita izan ostean. Izan ere, 1919. urtean utzi zion Felix Zubiatek zeramika egiteari eta harrezkero itxita izan zen. 1974an aurkitu zuten labea, beste instalazio batzuetan ezkutatuta.

OÑATI

Euskal selekzioaren aldeko jaiari herritarren babesa ►▲

ESAITek, Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak, ekainaren 5erako jaialdia antolatu zuen Oñatin, euskal selekzio ofizialaren alde. Eta arrakasta borobila eskuratu zuen ospakizunak. Aldarrikapenak eta festak fusio perfektua izan, eta Oñatiko kaleetan jende asko batu zen antolatu ziren kirol probak animatzen. Jolasak, musika, kirol probak... denetarik izan zen egun hartan Oñatin.

BERGARA

Gau magikoa bizi izan zuten Munibe plazan ▲

Ramon Arantzabalek egindako performanceak kolorez eta musikaz estali zuen Munibe plaza ekainaren 25ean. Musika, dantza, poesia eta pintura uztartu zituen Arrasateko margolariak ordu erdi iraun zuen performancean. Jean Sibelius musikari finlandiarraren Tuonelako zisnea izeneko sinfonia oinarri izan zuen Arantzabalek ikuskizuna asmatzerakoan. Plaza jendez bete zen.

BERGARA

ELKORORREN ALDEKO BIZIKLETA MARTXA JENDETSUA EGIN ZUTEN

Uztailaren 2an, adin guztietako ehunka bergarar bizikleta gainera igo eta *Mugituko da!* Jose Luis Elkororen aldeko leloa irudikatzen duen elefantea gidari zutela, ibilaldia egin zuten Bergaran zehar, alkate ohiaren askatasuna eskatzeko.

ARRASATE

LABEKO KOBAKO INDUSKETEN EMAITZAK OXFORDERA

Arrasateko Labeko koban aurkitutako hainbat material uste zena baino 10.000 urte gehiago duela baieztatu zuen Oxfordeko Unibertsitateak; 45.000 urte dituzte. Emaitzen gainean eztabaidatzeko, apirilean kongresua egingo dute Oxforden.

OÑATI

SAN FRANTZISKO BORJA ETA BIDAURRETAREKIN, ZIGILUAK

San Frantzisko Borjakoaren jaiotza eta Bidaurreta eraikitzen hastearen 500. urteurrenaren harira, seilu bana atera zuen Txanpon eta Zigilu Elkarteak. Lehenengoaren gaineko liburua ere aurkeztu zuten Jose Antonio Azpiazuk eta Jerardo Elortzak.

ARETXABALETA

GARIKOITZ GARTZIA ARRIETA ESTRADITATU ZUEN PORTUGALEK

Uztailaren 23an, Portugalek ETAko ustezko kide Garikoitz Gartzia Arrieta aretxabaletarra Espainiara estraditatu zuen eta handik hiru egunera, behin-behineko kartzela zigorra ezarri zioten. Urtarrilean atxilotu zuten, Iratxe Yañezekin batera.

22

UME

Horixe da Txernobil eta Saharatik uda igarotzera Debagoienera etorritako ume kopurua. Txernobilgo 7 neska-mutiko eta Saharako 15 izan ziren gurean.

ANTZUOLA

Goizperren urteurreneko liburua aurkeztu zuten ▶

Uztailaren 8an aurkeztu zuten *50 urte elkarlanean* liburua, Goizper lantegiaren lan ibilbidea jasotzen duen liburua. Pedro Iturbe alkatea, Pako Legorburu fundatzaileetako bat eta Oscar Uzkudun gaur egungo lehendakaria izan ziren aurkezpen ekitaldian. 1964an lehenengo pabiloia eraiki zutenean 20 langile zituen Goizperrek, eta gaur egun 170 lagun inguru dira. Nekazaritza eta industria jardueretan sartuta dago taldea.

ARRASATE

Iban Velascok Tourrean parte hartu zuen ▲

Profesional mailan lau urte egin ondoren, Iban Velasco arrasatearrak debuta egin zuen Frantziako Tourrean. Euskaltel Euskadi taldeko txirrindulariak 62. tokian bukatu zuen. "Nekatuta eta gogortuta" zegoela esan zigun helmugara heldu zenean.

Tourrean izandako Debagoieneko laugarren ziklista izan zen Velasco, Jesus Arantzabal bergararraren, Enrique Alonso arrasatearraren eta Jon Odriozola oñatiarraren ondotik.

ANTZUOLA

Musika eta dantza berria Mairuaren Alardean ◀

Antzuolako jaien harira egindako Mairuaren Alardeak berrikuntzak izan ditu aurten. Besteak beste, musika pieza berriak eta dantza berria estreinatu zituzten uztailaren 17an. Dantzari dagokionez, alardea plazara iritsi zenean neskek egin zuten dantza. Bestalde, musika pieza bi entzun ziren: Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Antzuolako mairuaren martxa* eta Antzuolako txistulari taldeak eta metal taldeak jo zuten *Antzuolako doinuak* lana.

ARAMAIOKO UDALA
ARABA

"Aramaioko Udalbatzak
Gabon zoriontsuak
opa dizkizue
aramaioar guztioi,
eta bereziki etxetik
kanpo zaudetenoi!"

AHTgelditu!
ELKARLANA

Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16
• E-posta: udala@aramaio.org

EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

BERGARA

Errege Mintegia berritzeko lanak hasi zituzten ▲

Uztail erdialdean hasi zituzten Bergarako Errege Mintegiaren eraikina egokitzeko lanak. Sei hilabetean teilatu osoa konpontzeko eta teilatupea egonkortzeko asmoa zuten. Horrez gainera, proiektuak fatxada eraberritzea, eraikin guztiko leihoen itxidurak berritzea, igogailua jartzea eta UNEDeko ikasleendako komun berriak egitea aurreikusten zuen.

BERGARA

HERRIA TURISMORAKO ERAKARGARRI EGITEKO PLANA

Bergarako Udalak herria turismorako erakargarri egiteko plangintza egin zuen, eta uztailaren 26ko ohiko osoko bilkuran onartu zuten. Besteak beste, Seminarioan Udal Liburutegia eta Zientziaren Museoa egitea aurreikusten zuen.

ARETXABALETA

ALBERTO IÑURRATEGI MENDIZALEA

Uztailaren 18an, Alberto Iñurrategi aretxabaletarrak Pakistango Broad Peak mendiko hiru gailurrak jarraian zapaltzea lortu zuen.

ELGETA

ARRAKASTA IZAN DUTE AURTEN ERE MAALAKO IGERILEKUEK

Elgetan urtero jartzen duten igerilekuek arrakasta lortu dute aurten ere. Uztailaren 19an eta 20an hiru igerileku jarri zituzten Maalako parkean, eta herriko umeek ederto pasa zuten jolasean. Udalekuetako haurrek ere ur jolasak egin zituzten han.

ESKORIATZA

Elizateetako bideak konpondu zituzten ▶

AP-1 autobideko lanengatik kaltetutako hainbat elizatetako bideak konpondu zituzten uztail erdialdean Eskoriatzan. Hain justu ere, Zarimutz, Mazmela eta Apotzagara doazen bideetan ibili ziren Orsa enpresako langileak lanean. Bide zorua eta kamino ertzak konpondu zituzten batez ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu zuen obra horien ardura. Ia 700.000 euro bideratu zituen horretara.

ANTZUOLA

Atez ateko zabor zerbitzua Antzuolan hasteko asmoa◀▶

Uztailaren 5ean egindako batzarrean, Debagoieneko Mankomunitateak aho batez onartu zuen agintaldia amaitu baino lehen Antzuolan hastea atez ateko zabor bilketa. Handik bi egunera, Antzuolako osoko bilkuran ontzat eman zuen Mankomunitatearen proposamena. Hain justu ere, zaborren bilketa modu berezi horren oinarria Usurbilen, Oiartzunen eta Hernanin darabilten eredua izango da. Martxorako abiatu nahi dute.



J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Gorosabel doktorea

• **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
• Aho zirugia
• Ortodontzia
• Odontologia orokorra
• Ahoko eta aurpegiko estetika plasmarekin.

Aseguruak: PADI (Osakidetza), AEGON

Tel. : 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

20 urte baino gehiago zuekin Bergaran, eskerrik asko danoi!

KANPAZAR

Zorionak eta urte berri on!

FIAT ALFA ROMEO SUZUKI

Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84

ARRASATE
AGUSTIN MARKAIDE
EROSKIKO ZUZENDARI NAGUSIA

"Txahal okela gutxiago eta oilasko bularki gehiago saltzen da krisiagatik"

ARRASATE
INAZIO IRIZAR
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

"Komunitateari lotuta dauden eredu ekonomikoak iraunkorragoak dira"

ARRASATE
SARA VITORIA
PSIKOLOGOA

"Bikoteak lehendik arazoak baditu, azaleratu egingo dira opor sasoian"

LEINTZ GATZAGA

ARLABANGO PLANA ONARTU ZUEN DIPUTAZIOAK

Diputazioko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak uztail amaieran jakinarazi zuen 450.000 euro bideratuko zituela Arlaban gaineko plazaren hornikuntza eta saneamendu proiektura. Plan horren inbertsioa 618.000 euro da.

BERGARA

POL-POL TABERNAK ATEAK ITXI ZITUEN UZTAILAREN 31N

Bergara Pol-Pol taberna barik geratu zen uztailaren 31n. Ateak itxi aurretik, azken 28 urteotan hango arduradun izandako Dunixi Olabarriak eskerrak eman zituen: "Eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei, batik bat Pol-Poleko parte izan diren guztiei".

DEBAGOIENA

E Planari esker egindako proiektuak, aurrera ▼◄

Madrilgo Gobernuaren Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoaren bidez Debagoieneko herrietan egiten ari ziren proiektuak aurreratuta zeuden. Aramaion izan ezik, gainerako herrietan lanak hasita zeuden uztailean, eta Leintz Gatzagan amaitu ere egin zituzten. San Migel plaza barrenean baranda jarri zuten han, besteak beste. Bestalde, Elgetako udaletxean leihoak aldatu zituzten, eta Bergaran Irizar jauregia berritu.

ARAMAIO

Baserri Barri proiektua aurkeztu zuten Sastiñan ▲

Aramaioko lehen sektorea bultzatzeko Baserri Barri (ABB) elkartea aurkeztu zuten uztailaren 14an. Ikusmin handia sortu zuen aurkezpenak, Sastiña bete egin zen-eta. Batzarrean, elkartearen berri eman zieten horko kide egin nahi duten ekoizleei eta, bide batez, herritarrei. Bost erakundek edo taldek osatzen dute: Udala, Sagardozaleen Elkartea, Baserritarren Elkartea, Esnegileen Elkartea eta AOBTk.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Zorionak eta urte berri on!

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16
Faxa: 943 76 09 32

ARRASATE

MATERIAL ASKO TOPATU ZUTEN LEZETXIKIKO AZTARNATEGIAN

Lezetxikiko aztarnategian aritu ziren uztailean lanean Alvaro Arrizabalaga indusketen zuzendariaren aginduetara. 15. ekinaldi horretan aztarna asko atera zituzten, eta, hori dela-eta, ziurrenik beste bi urtean lanean jarraituko dutela uste zuten.

99

NEGOZIO

Oñatiko zerbitzu arloko 99 negoziok eskatu zuten Udalaren dirulaguntza, abuztuan zabalik izateagatik. 2009an 113k eskatu zuten laguntza.

ANTZUOLA/ARRASATE

Markel Olano, bailarako hainbat proiektu ikusten ▶

Diputazioak krisiari aurre egiteko martxan jarri duen enpresendako planak 3.356.961 euro utzi zituen Debagoieneko 19 lantegitan, 31 proiektu garatzeko. Markel Olano ahaldun nagusia eta Jose Ramon Guridi Berrikuntzako diputatua Antzuolako Elayn eta Arrasateko JMA Alejandro Altunan izan ziren joan den uztailaren 14an, dirulaguntza horiekin bultzatutako proiektuak bertatik bertara ezagutzen.

ARRASATE

Olandixoko tunela estreinatu zuten uztail amaieran ◀

Uztailaren 24an, Arrasateko mendebaleko saihesbidea zabaldu zuten publikoarendako. Motor bako ehunka bisitarik estreinatu zituzten instalazio berriak; tartean, 800 metroko luzera duen Olandixoko tunela ezagutu zuten. Asteburuan oinezkoendako eta txirrindulariendako izan ostean, uztailaren 26an autoendako estreinatu zen saihesbide berria.

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

K21

- Proiektuak
- Koltxoiak
- Horma-armairuak
- Altzariak neurrira



- Ateak
- Eskailerak
- Leihoak
- Tarimak
- Egur lanak orokorrean

Urte Berri On!



ANTZUOLA

AHT-REN AURKAKO KANPALDIA EGIN ZUTEN ANTZUOLAN

Uztailaren 26tik abuztuaren 1era kanpaldia egin zuten Antzuolan abiadura handiko trenaren aurka. Ekintza gehienak Torresoroan eta Zurrategin egin zituzten. Gainera, Bergarako lanetara manifestazioa egin zuten, Ipiñarri baserriraino, hain zuzen.

ARRASATE

ETORKIZUNEKO MARKESINA JARRI ZUTEN OSPITALE ONDOAN

Etorkizuneko markesina, horrela izendatu zuten, Arrasaten, ospitale ondoan jarri zuten markesina berria. Udalak Arrasate Kristaldegiarekin lortutako akordioaren ondorioz jarri zuten. Irratia eta wi-fi sistema ditu markesinak, besteak beste.

OÑATI

BIDAURRETAREN GAINEKO HITZALDIA EGIN ZUTEN

Oñatiko Bidaurreta monasterioak 500 urte bete ditu aurten. Hori dela-eta, urteurren ospakizunak hasi zituzten abuztuan. Hain zuen, Martin Mendizabal frantziskotarrak hitzaldia egin zuen abuztuaren 10ean monasterioan bertan.

ARRASATE

Zerrajera kalea zabaldu zuten, bi noranzkokoa ▼

Ospitale ingurutik erdigunera joan-etorria egiteko bide berria zabaldu zuten: Zerrajera kalea. Horri esker, posible da San Andresko biribilgunetik sartu, eta erlojuaren eraikinetik Zerrajeraraino eta handik ospitale ingururaino (Nafarroa etorbidea) automobilez iristea. Bi noranzkoko errepidea da zabaldu zutena; izan ere, abuztuan bukatu zituzten Zerrajera urbanizatzeko lanak.

ELGETA

Euskal selekzioen aldeko aldarria Elgetan ►▼

Abuztuaren 4an iritsi zen Elgetara Esaitek antolatutako mendi martxa. Euskal Herriko selekzioen aldeko 10. martxa izan da aurtengoa. 90 lagunek inguruk parte hartu zuten mendi martxan.

Egun osoko jaia antolatu zuten Elgetan. 240 kiloko txahala erre zuten bazkaritan jateko. Entsalada, txahala eta gazta gertatu zuten 150 bat lagunendako. Elgetatik Apatamonasterio aldera egin zuten, eta abuztuaren 6an Aramaiora iritsi ziren.

ARETXABALETA

Karmele Igartua poeta aretxabaletarra hil zen ▲

Abuztuaren 20an hil zen Karmele Igartua. Aretxabaletan jaioa, 1959an. Irakaslea herriko eskolan. Poesia izan zuen beti lagun, irakasle jardunean ere aukera izan zuen sortutako antzezlanak ikasleekin eta irakasleekin taularatzeko. 2005. urtean Bergarako Idazle Eskolan izena ematea iturri bat zabaltzea izan zen Igartuarendako. Azaroan, Bergarako UNEDeko idazle eskolak omenaldia egin zion Igartuari.

DEBAGOIENA

Ostatuak eta turismo bulegoetakoak, pozik ▲

Debagoieneko ostatu eta turismo bulegoetan pozik geratu ziren abuztuak eman zuenarekin. Elgetako ibilbide tematikoa eta Arrikrutzeko espeleoabentura izan ziren izarrak. Jon Arroita Bergarako turismo bulegoko arduradunak azaldu zuen bisitari kopurua zerbait igo zela; 478 bisitari izatetik 596 bisitari izatera pasa ziren. Valen Gomez Eskoriatzako Azkoaga Eneako arduradunaren iritziz, ostera, ez zen abuztu ona izan.

JOMA

Urte Berri On!

DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK, GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE

ARAMAIO

ANDRES OSINAGA ARAMAIOKO ZINEGOTZIA HIL ZEN

Abuztuaren 17an hil zen Andres Osinaga Aramaioko Udalean EAko zinegotzi zena. Gaixotasun luze baten ondorioz hil zen Osinaga; hain zuzen, Gasteizen hil zen, 62 urterekin. Haren lekua Udalean Jose Goronaetak hartu du.

OÑATI

JULEN KORTABARRIA

ATLETA

Ingalaterran, Bolton hirian jokatutako ironman probatik pozik itzuli zen Julen Kortabarria. Abuztuaren 1ean izan zen proba, eta 118. postuan geratu zen.

OÑATI

MARKEL IRIZAR

TXIRRINDULARIA

Markel Irizarrek Paitou-Charentes lasterketako laugarren etapa irazi zuen abuztuaren 26an. Modu horretan, bere kirol bizitzako palmaresa estreinatu zuen.

OÑATI

LOURDES IDOIAGA

OÑATIKO ALKATEA

"Atez ateko sistemak ere errausketa planta edo zabortegiaren beharra dauka"

113

KOMERTZIO

113 denda, taberna, jatetxe eta komertziok jaso zituzten Oñatiko Udalak emandako dirulaguntzak abuztuan zehar komertzioak zabalik izatearren.

ARETXABALETA

Andra Mari jaietan Doctor Deseoren kontzertua ▼

Doctor Deseo talde bizkaitarrak ia bi orduko emanaldia egin zuen abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean. Jaietako izarrak izan ziren, eta zaleak gustura egon ziren Aretxabaletako plazan emanaldia ikusten. Eguna elizbirarekin hasi zuten, azken bi urteotan legez. Aurten, baina, udalbatzako kideek ez dute parte hartu bira horretan eta elizara joan ziren txistulariak zuzenean.

ARAMAIO

Igerileku irekiak jarri zituzten lehenengo aldiz ▲

Aramaion, abuztuan, 12 urtetik beherako gaztetxoendako igerileku irekia jarri zuten lehenengo aldiz. Eguraldiak lagundu zuenetan, gazte ugari joan zen igerilekura. Ondo baino hobeto ibili zirela azaldu ziguten. 0 eta 7 urte bitartekoendako igerileku txiki bat eta 8 eta 12 urte bitartekoendako beste handi bat ipini zuten. Abuztuaren 29an itxi zuten igerilekua.

EUSKAL HERRIA

ETA-K ERASO MILITARREN ETENA IRAGARRI ZUEN IRAILAREN 5EAN

Poza zein etsipena, biak piztu zituen ETAren adierazpenak. Hilaren 25ean, *Bake bidean aterabide demokratikoa* izeneko ituna sinatu zuten Gernikan ezker abertzaleak, Aralarrek, Alternatibak eta Eusko Alkartasunak, besteak beste.

LEINTZ GATZAGA

GIPUZKOAKO BUZTAN ONENA, GATZAGARREK PRESTATUTAKOA

Irailaren 28an Gipuzkoako erretiratuen elkarteen arteko gastronomia txapelketa egin zuten Donostian. Zazpi bikotek zezen-buztana gertatu zuten. Gatzagako Toki Eder elkarteko Maritxu Plazaolak eta Beni Altunak irabazi zuten saria.

OÑATI

JESUS ZUFIRIA

GOROBIZKARREKO ARTZAINA

Irailaren 5ean Legazpin egin zen Gipuzkoako Artzain Eguneko protagonistetako bat izan zen oñatiarra. Pozik igo zen agertoki gainera omenaldia jasotzera.

BERGARA

IÑIGO MITXELENA

BERGARAKO PARROKO OHIA

Irailaren 11n Jose Inazio Munilla gotzainak esan zuen meza Bergaran. Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena parrokoei agur beroa egin zieten eliztarrek.

ARETXABALETA

MIKEL GALDOS

GOLF JOKALARI PROFESIONALA

Gipuzkoako golf jokalari profesional onenaren saria eskuratu zuen aretxabaletarrak irailaren 20an Andoainen jokatutako Gipuzkoako txapelketan.

BERGARA

Larramendiko industrialde handia, gertu ▶

Irail hasieran jakin genuen Bergarako Larramendiko poligonoa, 300.000 m2-koa, bukatuta zegoela. Bi urteko lanen eta 25.000.000 euroko inbertsioaren ondoren, enpresa handiendako bereziki pentsatutako industrialdea prest zegoen. Bederatzi lursail ditu, eta txikienak 4.000 metro koadro hartzen ditu; ohiko industrialdeetan, handiena 1.500 bat metro koadrokoa da. Eusko Jaurlaritzak kudeatuko du zuzenean, Spri Lur sozietate publikoaren bidez.

DEBAGOIENA

Induspeko tuneleko zulatze lanak amaituta ▲

Irailaren 1ean amaitu zuten AHTren Eskoriatza eta Aramaio arteko Induspeko tunela zulatzen (2.224 metro eta 32 milioi euroko aurrekontua). Lanen amaieran izan ziren Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburu Iñaki Arriola; Adifeko presidente Antonio Gonzalez; eta Madrilgo Gobernuko ordezkaria Araban, Gloria Sanchez. Tarte horrek 5,6 kilometro izango ditu eta horietatik 3,5 kilometro pasatxo lur azpitik joango dira.

ARRASATE

Patxi Lopez lehendakaria MUren zentro berrian ◀

Hilaren 6an inauguratu zituen Mondragon Unibertsitateak Garaia Berrikuntza Gunean sortu duen zentro berria eta 2010-2011 ikasturtea. Patxi Lopez lehendakaria inaugurazio ekitaldian izan zen, Isabel Zelaa Hezkuntza sailburu, Markel Olano ahaldun nagusi eta Ino Galparsoro Arrasateko alkatearekin batera. "Ikerketa, garapena eta berrikuntzaren aldeko apustua" berretsi zuen Lopezek. MUk automobil *inteligentea* aurkeztu zuen.

ESKORIATZA

EGUENETAN EURO BATEN TRUKE TRAGOA ETA MOKADUTXOA

Irailaren 9an hasi zuten Eskoriatzan pintxo-poteo ekimena. Herriko giroa berotzeko asmoarekin euro baten truke garagardoa edo ardo ondua mokadutxoarekin eskaintzen hasi ziren herriko ostalariak. Oso harrera ona izan zuen ekimenak.

ARETXABALETA

URBALTZ ELKARTEAREN 25. URTEURRENEKO EKITALDIAK

120 bazkide dituen elkartean irailaren 18an egin zuten urteurreneko ekitaldi nagusia. Bazkaria eta rock kontzertua egin zituzten, besteak beste. Floren Aioz eta Martin Garitano Aretxabaletan izan ziren aste hartan hitzaldiak egiten.

OÑATI

OMENALDIA MIGEL ANGEL ETA JOXE MARI ARZUAGA ANAIEI

Oñatiarrek arzuagarrak zenbat maite zituzten argi gelditu zen irailaren 17an egin zitzaien omenaldian. Erakusketa ere zabaldu zuten kultura etxean. Oñatiko kale eta pertsonaia esanguratsuak egon ziren bertan ikusgai.

OÑATI

Oñati eta Zumarraga lotzeko 30 autobus gehiago ▲

Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Arantza Tapiak, Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak eta Pesako arduradun Alejandro Nayak irailaren 16an aurkeztu zuten Arrasate-Oñati-Zumarraga linearen joaneko eta itzulerako autobus zerbitzu berria. Urriaren 1ean jarri zuten indarrean; 11 autobus gehiago dabiltza astelehenetik egubakoitzera eta 19 gehiago aste bukaeretan.

ARAMAIO

Txirritola egunean euskara eta sagardoa ◄▼

Irailaren 12an egin zuten Txirritola Eguna Aramaion. Herriko euskara elkarteak antolatutako jaian hamabi sagardogilek hartu zuten parte. Herriko Bertso Eskolako lagunek egin zuten txotx irekiera eta inguruko herrietako jende ugari animatu zen bertara hurbildu eta egun pasa egitera. "Badira hamar bat urte Txirritola Eguna ospatzen duguna, eta balantzea positiboa da", esan zuen elkarteko presidente Xabi Herrartek.

BERGARA

Ohorezko zazpi kofradekide izendatu zituzten ◄

Bergarako Erreileno eta Tostoien Kofradiak irailaren 19an egin du aurten urteroko kapitulua, 11.a dagoeneko. Ohorezko kofradekide izendatu zituzten Txintxurreta anai-arrebak (Felisa, Antxoni, Euxebio eta Florita Txintxurreta), Galarreta zapata-dendako arduradunak, Musika Eskolako kideak eta Jokin Etxaniz pilotari ohia.

Ekitaldi borobila izan zen eta kofradekide berriak hunkituta ikusi genituen.



BERGARA

TXIKI-TXOKOA ZABALOTEGIKO ESKOLA ZAHARREAN

Irailaren 20an zabaldu zuten 0-5 urte arteko umeak aita-amarekin egoteko eta aterpean jolasteko gunea. Bi ikasgelarekin, bata oinez dabiltzan haurrendako gune izendatu zuten eta bestea, oraindik katamarran dabiltzanendako gune.

BERGARA, ARETXABALETA

URKULUN ETA MEKOLALDEN BIDEGORRI BERRIAK PREST

Irailean amaitu zuten Urkuluri buelta ematen dion bidegorriaren hirugarrien zatia; Areantzako bidegurutzea eta Goroeta arteko bidea, hain zuzen ere. Irailaren 21ean zabaldu zuten, berriz, Bergaran Mekolaldetik Soraluze arteko bidegorri zatia.

BERGARA

ELKORORREN ALDEKO MARTXA HONDARRIBITIK BERGARARA

Jose Luis Elkoro aske uzteko eskaria eginez haren aldeko martxa egin zuten hainbat lagunek irailean Hondarribitik Bergarara. Martxa irailaren 25ean iritsi zen Bergarara. Elkororen senitartekoak hunkituta agertu ziren jasotako babesarengatik.

ARRASATE

KOOLTUR EGUENAK ARRASATEN

Arrasaten urtetan kulturgintzan jardundakoek elkarte berria sortu zuten eta irailean, hilaren 25ean, aurkeztu zuten ekimena. Iragarri zuten azarotik aurrera Kooltur Eguenak antolatuko zituztela eta lehenengo jaialdia azaroaren 4an egingo zutela.

BERGARA

Doako eta denbora mugatuko TAO zerbitzua ▲

Irailaren 20an abiarazi zuten Bergaran doako eta denbora mugatuko TAO zerbitzua. Lau gunetan jarri zuten: Oxirondo eta San Martin plazetan, Ibargaraiko parking publikoan eta Ibargarai, Zurradero, Telesforo Aranzadi, Joan XXIII.a, Fraiskozuri, Irizar eta Herri Lagunek guneetan. Abenduaren 20an, Udalak onartu zuen Kruz Gallastegi, Bideberri eta Irala ere TAO gunean sartzea, eta sistemaren ordutegia luzatzea.

LEINTZ GATZAGA

Aitor Zabaleta garaile Gatzagako igoeran ▼

22 urteko atsedenaren ostean, indarberrituta itzuli zen irailaren 18an Gatzagako auto igoera. 46 pilotuk esku hartu zuten eta ehunka lagunek jarraitu zuten.

Aitor Zabaleta bergarrara izan zen pilotu azkarrena; lau segundoko aldea atera zion Angela Vilariño bigarren sailkatuari. Kontuan hartzeko moduko beste datu bat ere eman zuen probak: igoeran parte hartu zuten 46 auto gidarietatik 12 debagoiendarrak izan ziren.

ARETXABALETA

Aretxabaletako abesbatzak 30 urte ▲

Irailaren 17an lepo bete zen Aretxabaletako Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoa. Aretxabaletako abesbatzako kideek emanaldi berezia egin zuten abesbatzaren 30. urteurrena ospatzeko. Ez hori bakarrik. Hiru hamarkada hauetan abesbatzak egindako ibilbidea jasotzen duen *Aretxabaleta Abesbatza 30 urteko ibilbidea* ikus -entzunezkoa ere aurkeztu zuten ekitaldian. Entzule leialei eskerrak emateko eguna izan zen abesbatzako kideendako.

Komenio, 2 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 00 01 • Fax: 943 76 22 41
E-mail: imprespal@euskalnet.net

IMPRESPAL
INPRIMATEGIA

Offset
Inpresio Digitala
Koloretako fotokopiak

zabalo
IGELTSEROTZA S.L.

Ondo pasau Gabonak!

ZAHARBERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak

Kalegoi 9 -1 • ANTZUOLA
Tel./ Faxa: 943 76 60 89 • Sakelekoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51
E-posta: *zabalosl@hotmail.com*

BERGARA

LIBURUA MARTZIAL AGIRRE ESKULTOREAREN GAINEAN

Irailaren 24an aurkeztu zuten liburua Bergarako kultura etxean. Mikel Lertxundik eta Larraitz Arretxek egindakoa *El escultor Marcial Aguirre eskultorea* delako liburuak Agirreren bizitzaren eta obraren gaineko xehetasun guztiak jasotzen ditu.

ANGIOZAR

OMENALDIA ANSELMO VEGARI ETA RUFINO MUÑOZI

Irailaren 25ean, angiozarrek auzoko maisua eta *autobuseroa* omendu zituzten. San Migel jaiak ospatzen ari zirela, auzotarrek euskal makila bana eman zieten omendutakoei eta urtetan auzoaren alde egindako lana eskertu zieten.

OÑATI

XABIER MUGARTZA

ULMA FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

"Ulmak duen gizarte erantzukizuna gestionatzeko sortu dugu fundazioa"

BERGARA

ARRATE BENGOA

PEDIATRA BERGARAN ETA ANTZUOLAN

"Azken bost urteotan pediatriaren egoerak okerrera egin duela argi dago"

OÑATI

IZASKUN BENGOA

EMAKUNDEKO ZUZENDARI OHIA

"Emakunde geldirik dago; oraingo arduradunek ez dute ideia berririk aplikatu"

ARAMAIO

Zazpi urteko kargugabetzea Aramaioko alkateari ▲

Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egiteagatik zigor hori ezarri zioten Aramaioko alkate Asier Agirreri. Berehala adierazi zuen Agirrek epai horren kontrako helegitea ipiniko zuela eta epai irmoa atera bitartean lanean jarraituko zuela. Elkarretaratzeak ere egin ziren Aramaion epai horren aurka. Irailaren 24an egindakoa duzue argazkian.

BERGARA

Jesus Mari Lazkanoren lanak Arte Eder Museoan ▲►

Irailean jakin genuen eskultore bergararraren lanak Bilboko Arte Eder Museoan ipiniko zituztela ikusgai. Erakusketa urriaren 4an zabaldu zuten eta urtarrilaren 16ra arte egongo da zabalik. Pozik hartu zuen albistea Lazkanok. Azken bi urteetan egindako 76 margolan dauzka ikusgai Arte Eder Museoan. Erakusketaren izenburua *De la arquitectura a la naturaleza* da.

DEBAGOIENA
UDALAK ETA FORU ALDUNDIA ZUBILLAGAKO HILTEGIAREN ALDE

Zubillagako hiltegia kudeatzeko elkarte publikoaren aldeko erabakia hartu zuten ibarreko udalek. Aldundiak ere aldeko apustua egin zuen. Gainera, udal ordezkariek konpromisoa hartu zuten Gipuzkoako hiltegien mahaian lanean jarraitzeko.

BERGARA
POLIZIA NAZIONALAK ETXE BAT MIATU ZUEN BOLU AUZOAN

Urriaren 22an etxe bat miatu zuen Polizia Nazionalak Bolu auzoan, Segiren kontrako operazioaren barruan. Aitziber Plazaola gaztea ez zuten aurkitu etxean. Egunean bertan manifestazioa egin zuten eta Udalak atxiloketen kontrako mozioa onartu zuen.

DEBAGOIENA
BAILARAKO 83 ODOL-EMAILE OMENDU ZITUZTEN ELGETAN

Antzuolako, Oñatiko, Bergarako eta Elgetako 83 odol-emaile omendu zituzten urriaren 23an. Horietatik, 50 lagunek zilarrezko intsignia jaso zuten, 25ek urrezko intsignia eta zortzik odol emaile bikainari intsignia. Guztira, 165 odol-emaile batu ziren Elgetan.

280.000

EURO

ONCEren loteriak 280.000 euro utzi zituen saritan Aretxabaletan. 35.000 eurorekin saritutako zortzi txartel saldu zituen Patxi Nuñez Morenok Mitarte kalean.

ELGETA
METRO ETA ERDI ZABALERAKO SKATE PARKEA ZABALDU ZUTEN

Skate parkea inauguratu zuten Elgetan. Metro eta erdiko zabalerarekin, igoerak eta jaitsierak dituen pista dute gaztetxoenek. Aurrekontua 1.386 euro izan da. Era berean, urrian zabaldu zuten bizikletendako gune berezia San Roke ostean.

BERGARA
Jose Luis Elkoro etxera heldu zen urriaren 14an ▶

Bergarako alkate ohi Jose Luis Elkoro Martuteneko kartzelatik irten zen urriaren 14an. Baldintza gogorretan utzi zuten aske: 08:00etatik 13:00etara bakarrik irten daiteke kalera, Bergaratik ezin da irten, astero joan behar du Martutenera sinatzera eta ezin du adierazpenik egin. Senitartekoek pozarren ospatu zuten aita etxean ikustea. Gainera, 400 bat lagun bildu ziren *Elkoro libre!* plataformak deitutako bazkarian, Elkororri ongietorria egiteko.

ARETXABALETA
Gerran fusilatutakoak omendu zituzten ▲

Lau Haizetara Gogoan Debagoieneko fusilatuen senitarteko eta lagunen batzordeak ekitaldi hunkigarria egin zuen urriaren 21ean, gerran fusilatutako 122 debagoiendarrak gogoratzeko. Txalapartaren hotsarekin batera, fusilatu bakoitzaren izenarekin izar marka zuen pegatina bana jarri zuten Oroimenaren Autobusaren kanpoaldean. Ekitaldia bukatu aurretik, altxamendu faxisten biktimekin gertatutakoa "argitu" barik dagoela salatu zuten.

ARRASATE
Erretiratuendako Etxaluze inauguratu zuten ◀

Etxe argitsu, handi eta erosoa estreinatu zuten Arrasateko erretiratuek: Etxaluze delako eraikina. Ikusmen handia sortu zuen herritarren eta erretiratuen artean egoitza berriak. Karta-joko eta dantzaldietarako "luxuzko" etxea dutela esan zuten ekitaldian bildutakoek. Ino Galparsoro alkatea egon zen inaugurazioan eta esan zuen adinekoendako eraikin "aproposa eta nahiko" izatea espero duela. Jose Riviere elkarteko presidentea "oso pozik" zegoen.

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.

Zorionak eta urte berri on!

TXOMIN GARAJEA

Mekanika orokorra

Tailer profesionala

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON GUZTIOI!

IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77

OÑATI
JERARDO ELORTZA
HISTORIALARIA

Jerardo Elortzak eta Inazio Irizarrek *Olaitturriren herri antzerkiak* delako liburua aurkeztu zuten, Makalenakoen antzerkietan oinarrituta.

OÑATI
IGNAZIO ARREGI
JESUITA ETA KAZETARIA

Ignazio Arregi jesuita eta kazetariak *Eta orain, zer?* delako liburua kaleratu zuen. Haren hitzetan: "Orain arte egindako ibilbidearen errepasoa jaso dut".

OÑATI
NEREA GIL
IKASLEA

Loreak bezala narratiba lanarekin D modalitateko –13-16 urte arteko ikasleak– lehen saria eskuratu zuen Txantxiku ikastolako ikasle Nerea Gilek.

DEBAGOIENA

AHTren kontrako protesta 'berdea' Debagoienean ▲

Euskal Herriko ibaiak berde kolorez margotuta agertu ziren urriaren 24an. AHTren kontrako protesta *berdea* Debagoienera ere heldu zen. Hori horrela, Oñatin, Arrasaten, Bergaran eta Aramaion errekek berde kolorea izan zuten eta AHTren kontrako kartelak jarri zituzten. AHT Gelditu! Elkarlanak hartu zuen bere gain ekintza. Herrizaingo Sailak informatu zuen errekara botatako substantzia fluoreszeina zela eta ez zela kutsakorra.

OÑATI

Arrikrutzeko Interpretazio Gunea inauguratu zuten ◄

Arrikrutzeko koben Interpretazio Gunea inauguratu zuten urriaren 26an. Hainbat panel jarri dituzte ikusgai Arrikrutzeko harreran: paisaia karstikoaren gainekoa, 1871 ezkero Oñatiko espeleologiaren historia jasotzen duena eta Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe multzo karstikoaren gainekoa, besteak beste. Gainera, leize lehoiaren eta leize hartzaren hezurdurak eta sekuentzia guztiak batzen dituzten kronogramak daude ikusgai harreragunean.

ARRASATE

Urteurreneko azken ospakizun beroa ◄▲

Txikitxu eta Arrostaitz taldeen urteurrena ospatzeko azken ospakizuna egin zuten urriaren 24an. Bi taldeetako kide izandako dantzariak igo ziren taula gainera Euskal Herriko dantzak erakusteko. Saioaren bukaeran, Marga Merkader, Eugenio Gartzia, Iñaki Lizarralde eta Kepa Uranga omendu zituzten, dantza taldeen alde egindako lanarengatik. Arrasateko erraldoien, Arrasate Musikalen eta Oñatiko Oñatz Dantza Taldearen laguntza izan zuten.

ARETXABALETA

ORDENAGAILUAK OSTU ZITUZTEN KURTZEBARRI ESKOLAN

Urriaren 6an lapurrak sartu ziren Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan. Eskola 2.0 programako 20-30 bat ordenagailu lapurtu zituzten. Lapurrak hesitik salto egin, aldamioa jarri eta lehenengo solairutik sartu ziren ikastetxe barrura.

ELGETA

PATRONATUAREN AZPIALDEAN JOLASTOKIA EGITEKO ERABAKIA

Domingo Iturbe patronatuari erabilera emateko ideia lehiaketa *Ikusi makusi* proiektuak irabazi zuen. Horren arabera, patronatuaren azpiko gunean jolastokia egingo dute eta goian aparkalekua. Aurrekontua milioi bat euro inguru izango da.

ANTZUOLA

ARMARRIAREN GAINEKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA

Edurne Egaña Foru Administrazioko diputatuak eta Pedro Iturbe alkateak aurkeztu zuten *Kudeatuz* programa. Hori horrela, armarriaren 12 kanoien gaia aztertuko du hainbat herritarren parte-hartzearekin osatutako taldeak.

ESKORIATZA

ZAHARREN EGOITZAN EGONDAKO MOJEI AGURRA EGIN ZIETEN

Urriaren 24an agurtu zituzten 98 urtez Karitateko Mesedeetako egoitzan egon diren mojak. 150 bat lagunek parte hartu zuten ekitaldian, eta eurek egindako lana "eskertu" zieten. Urte hauetan guztietan 31 moja egon dira Eskoriatzan.

BERGARA

Txotxongilo mostrak ikusmena piztu zuen ►

Taun Taun taldeak antolatuta Nazioarteko Txotxongilo Mostra egin zuten urriaren 23an eta 24an. Ikusmen handia piztu zuen ekimenak. Hori horrela, Munibe plaza lepo bete zen Alemaniako eta Errusiako The Fifth Wheel taldearen *Cabaré de hilos* antzezlana ikusteko. Herritarren arreta piztu zuen baita ere Aroztegi aretoan zegoen erakusketak. *Fantasía mecánicas-arte y tecnología* delako erakusketak, hain zuzen ere.

OÑATI

Enpresagintza Fakultatearen eraikin berria ◄▲

Fakultatearen 50. urteurrenean eraikin berria inauguratu zuten urriaren 27an. Gainera, fakultatearen historia batzen duen liburua aurkeztu zuen Jose Antonio Azpiazuk azaroaren 10ean. Urteurrenaren azken ekitaldia Kursaalen egin zuten azaroaren 18an.

Cafe Bergara
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
Bidekurutzeta 34
BERGARA
TEL.: 943 76 17 41



ileak
mari karmen ileapaindegia
Gabon zoriontsuak izan!
san lorentzo 9 a behea
tel.: 943 72 60 46
OÑATI

ARRASATE, BERGARA

ESPERIENTZIA ESKOLAKO IKASTURTE BERRIAREN HASIERA

Urrian hasi zituzten Arrasaten eta Bergaran Esperientzia Eskolen ikasturteak. Arrasatekoa hirugarrena da, eta Bergarakoa lehena. Azken horretan, 32 erretiratuk dihardute. Donostiako Matia Fundazioak sortu zuen Esperientzia Eskola 1998an.

BERGARA

GAZTE INFORMAZIO ZERBITZUAREN BULEGOA ITXITA

Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuak kultura etxean zuen bulegoa urriaren 30ean itxi zuten. Dena den, han ematen ziren hainbat zerbitzu Udaleko beste sail batzuetan eskuratu ahalko dute bergararrek, besteak beste, liburutegian.

ARRASATE
KOLDO TELLITU
IKASTOLEN ELKARTEKO PRESI.

"Guk sinisten dugu sare publikoan eta ikastoletan, euskal hezkuntza propioan"

BERGARA
ESTEPAN PLAZAOLA
GOIENAKO PRESIDENTEA

"Goienako kolaboratzaileen lana aitortu eta eskertu gura dugu"

ARETXABALETA
JON SARASUA
HUHEZIKO IRAKASLEA

"Jendarte oparo batean bizi gara eta pobrezia pantailan ikusten dugu"

ESKORIATZA

Bailarako txistularien topaketa egin zuten ▲

Debagoieneko I. txistularien topaketa egin zuten urriaren 30ean Eskoriatzan. Arrasateko, Gatzagako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako 40 bat txistulari elkartu ziren egun osoko festan. Jaia hasteko kalejira egin zuten kaleetan, eta ondoren kontzertua egin zuten plazan. Antolatzaileak "oso pozik" agertu ziren, eta hurrengo urtean deialdia Aretxabaletan egingo dutela esan zuten.

ARRASATE

Udalbiltzako auzipetuen alde bertsotan ▲►

Udalbiltzako auzipetuei babesa emateko bertso saio berezia egin zuten urriaren 24an Arrasateko Amaia antzokian. Aretoa lepo bete zen. Euskal Herriko txapelketako finalean jardun zuten zortzi bertsolariak igo ziren oholtzara, 800 bertsozaleren gozamenerako. Ekitaldian egon ziren auzipetuak, eta esker oneko hitzak esan zituzten: "Zuen berotasuna bihotzean dugula goaz Madrilera".

ARRASATE
BIZKAIA ETORBIDEKO IGOGAILUA INAUGURATU ZUTEN
Azaroaren lehenean eman genuen Bizkaia etorbideko igogailuaren berri. 252.516 euroko inbertsioa eginda, lehen zegoen igogailuari solairu bat gehitu zioten, eta oinezkoen pasabidea egin; Jaurlaritzak 72.000 euro jarri zituen.

DEBAGOIENA
BIKAIN ZIURTAGIRIA IBARREKO HIRU ENPRESARI
Bikain euskararen kalitate ziurtagiria jaso dute Debagoieneko hiru erakundek. Bergarako Aranzadi ikastolak 2010eko goi mailako saria jaso zuen eta MUko Eteok eta Huhezik, 2009ko goi mailako Bikain saria.

BERGARA
2020RAKO PLAN ESTRATEGIKOA ABIAN JARRI ZUTEN
Bergarako Udalak 2020. urtera arteko udalerriko Plan Estrategikoa egin nahi zuen herritarren parte-hartzearekin. Azaroan hasi nahi zuten egitasmoa, eta hamar urte barru zelako Bergara nahi zuten galdetu, besteak beste.

BERGARA
Betiko ehun erremedio batu zituzten DVDan ▼



Errremeixoak. Osasuna munduko ondasuna DVDa aurkeztu zuten azaroko lehen astean Bergaran.

DVDak bi orduko iraupena du eta gaixotasunak osatzeko erabili ohi diren sendabelar eta bestelako erremedioak aztertu eta jaso dituzte; guztira, 100.

Erremedioak batzeko, Antzuola, Bergara eta Zumarragako 12 laguni eginiko elkarrizketetan oinarritu dira. Anaje Narbaitzaren ideiatik abiatuta, hiru urte egin dituzte lana egiten.

ARRASATE
Goienak 10 urte egin dituela-eta, jaialdia ◄▲►

2010a urte berezia izan da Goienarendako, Debagoieneko komunikazio taldeak urteurrena bete duelako, hamar urte.

Eta urteurrena ospatzeko jaialdia egin zuten azaroaren 11n Arrasateko Amaia Antzokian. Bertan batu ziren Diputazioko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, udal ordezkariak eta eurekin batera euskara elkarteetako lagunak –lehengoak eta oraingoak, eta, noski, baita herritarrak ere.

ARRASATE
Japonieraz ikasteko liburua, Goikoleak ►

Euskal Herriak eta Japoniak elkarrengandik ikasteko asko dutela uste du Jon Goikolea arrasatearrak, eta horretan lagun diezagukeen liburua argitaratu du: *Japoniar ideogramak*.

Azaroaren 14 aurkeztu zuen liburua, asteburu hartan Bilbon egin zuten Nihon jaia –nazioarteko japoniar jaialdia– aprobetxatuta. Liburua egiteko, Jos R. De Roo abade flandiarrak japoniar hizkiak sailkatzeko asmatutako metodoan oinarritu da.



ARREGi
Landetxea
Garagaltza auzoa 21 • OÑATI
www.casaruralarregi.es
info@casaruralarregi.es
Zorionak eta Urte berri on!
Tel. 943 78 36 57 - Tel./Faxa: 943 78 08 24

Zorionak eta Urte Berri On!
EuroTaller
GARAJE MURILLO
Ricardo Murillo Ilarduya
AUTO KONPONKETAK OROKORREAN
Leizeaga 4 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 84

Atxabaltar danoi Zorionak eta urte barri on!

Aretxabaletako Udala

ARETXABALETA
OLAIA SAGREDO
SAHARAR HERRIAREN ALDEKO TALDEKO KIDE

Olaia Sagredo aretxabaletarra Marokoko Casablanca hirian poliziak erretenituta egon zen 24 orduz, azaroaren 6an. Ez zieten utzi Aaiunera joaten.



OÑATI
JON ODRIOZOLA
BIDELAN-KIROLGI ZIKLISMO TALDEKO ZUZENDARIA

Oñatiarra txirrindulariak zuzentzera itzuliko da, amateur mailan, Bidelan-Kirolgiko zuzendari berria dela iragarri zuen-eta azaroan.

BERGARA
ARRONDO ETA GONZALEZ
UDAL MUSIKA BANDAKO KIDEAK

50 urte bete dituzte Bergarako Udal Musika Bandan Jose Mari Arrondok eta Jose Mari Gonzalezek; omenaldia egin zieten Santa Zezilia egunean.

ARRASATE
GARAPENERAKO ZENTRO FAGOR HOMETEK AURKEZTU ZUTEN

Ikerkuntzarako, garapenerako eta berrikuntzarako zentroa, Fagor Hometek, inauguratu zuten azaroaren 22an Arrasaten. Fagor Taldeak iaz berrikuntzan 69,5 milioiko inbertsioa eginda, dagoeneko 1.000 produktu patentatu dituzte.

OÑATI
PATXI HIPOLITO HIL ZEN AZAROAREN 3AN

Oñatiko gaztelekuko dinamizatzaile izatearekin batera, bestelako lan eta ekimen askotan parte hartu izandakoa zen Hipolito. Besteak beste, Potxo Edizioak argitaletxeko sortzailea izan zen. Hala, azaroaren 14an omenaldia egin zioten.

BERGARA
Tavex enpresa itxi egingo zutela iragarri zuten ▲

Bergarako Tavex enpresa itxi egingo zutela iragarri zuten azaroaren erdialdean. Enpresako zuzendaritzak ez zuen adierazpenik egin nahi izan, baina, ELA sindikatuak helarazitako informazioaren arabera, enpresako ugazabek itxiera negoziatua bilatu nahiko zuten.

Tavex enpresa multinazionala da, 2006an Santista Textil enpresa brasildarrarekin elkartu zenez geroztik. Azaroan 64 zebiltzan Bergaran lanean.

LEINTZ GATZAGA
Artisauen azoka San Milixanak ospatzeko ◄▼

Euri giroari aurpegi ona erakutsi zioten gatzagarrek azaroaren 14an San Milixan eguneko 18. ferian. Debagoieneko bisitari asko joan ziren Leintz Gatzagara –nahiz eta antolatzaileek gehiago espero.

XVIII. Eskulangintzen Feria izan zen ospakizun nagusia, eta sasoi bateko lanbideak erakusteko balio izan zuen, urtero moduan. Hamabost postu izan ziren. Bestalde, euskal oihalen erakusketa ederra egon zen.

ESKORIATZA
Pilotalekua goraino Pirritx eta Porrotx ikusteko ◄

Eskoriatzarrek –eta Eskoriatzara joandakoek– gogo handia zuten Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko. Batetik, pailazo horiek dituzten paregabeko ezaugarriengatik; bestetik, Pirritx bera eta haren seme-alaba Pupu eta Lore jendaurrean ikusi ahal izateko; Hala, aurreko estreinaldi guztien moduan, *Ongietorri, Pupu eta Lore* ikuskizunaren estreinaldiak erabateko arrakasta izan zuen; pilotalekua goraino bete zuten ehunka gaztetxok, eta gurasoek.

Ana Etxeberria
• Kirol masajista
• Osteopatia
• Esku terapeuta
• Akupuntura
Zorionak eta Urte berri on!
Errekalde 6 behea • ANTZUOLA • Tel.: 943 76 60 13

PESCADERIA JOXAN ARRAINDEGIA
Orain, Super Amaran ere bai!
Gabon zoriontsuak igaro!
Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29

ARETXABALETA

TXARAPEAKO ETXEEKIN AURRERA, GELDI EGON OSTEAN

Uztail ingurua ezkero geldi egon ostean, Deba ibaiaren beste aldeko etxeetan –Txarapea kalea– azaro erdialdean hasi ziren berriro ere lanean. Hala, Bruesak iragarri zien jabeei 5. eta 6. blokeak apirilean amaituko zituztela; besteak uztailean.

ELGETA

GAIZKI APARKATUTAKO AUTOEI ISUNAK IPINTZEN HASI ZIREN

Ertzaintza azaroan hasi zen Elgetan txarto aparkatuta zeuden autoei isunak jartzen. Gaizki aparkatzea arau-hauste arina da eta 100 eurora arteko isuna ekar dezake, Zirkulazio Legearen 67. artikuluaren arabera. Elgetan 80 euroko isunak jarri izan dituzte.

ARRASATE

ELENA MONDRAGON

ENPLEGU BULEGOKO ZUZENDARIA

"Euskarak presentzia handiagoa izango du aurrerantzean Lanbiden"

ESKORIATZA

Andres Agirianok 104 urte bete zituen: zorionak! ▶

Bolibar elizateko Karoi baserriko Andres Agirianok 104 urte bete zituen. San Andres egunean jaio zen.

Osasun eta umore onez, etxekoez inguratuta ospatu zuen urtebetetze eguna, eta, urtero moduan, Udaletik eta Olazar erretiratuen elkartetik ere joan zitzaizkion opari eta guzti.

Hala, ehun urte baino gehiago duten 15 aitajaun-amandre daude Debagoienean, horietako bost Eskoriatzan.

OÑATI

Tratu txarren kontra, marrazkiak ▲

Emakumeen kontrako tratu txarren aurkako nazioarteko eguna dela-eta, Gizarte Zerbitzuek marrazki lehiaketa egin zuten DBHko 3. eta 4. mailetakoen artean; gazteek 30 lan aurkeztu zituzten.

DEBAGOIENA

Lasterketaz betetako sasoia da azaroa ◀

Udazkenean lasterketa mordoa izaten dira gurean, baina azaroan Antxintxika krosa (Soraluze-Bergara) eta Behobia-Donostia lasterketa azpimarratzekoak dira. Lehenengoan 562 lasterketa iritsi ziren Ibargarain zegoen helmugara eta David Gartzia eta Ainhoa Landinez izan ziren azkarrenak. Behobian, Imanol Molinero harrapatu genuen pozarren. Oñatikoa ibarreko azkarrena izan zen gizonetan, eta emakumezkoetan Rakel Alonso arrasatearra.

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA
KONDE
PANADEROKUA

Zorionak
eta urte berri on!

Burdiñate 11 Tel.: 943 76 02 57
Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87
BERGARA

Zorionak eta urte berri on!

Oñati
GARAJEA
Peugeot etxeko tailer ofiziala

Goribar auzoa 9 OÑATI
Tel.: 943 78 13 50
e-posta:
garageonati@euskalnet.net
· *Salmenta, mekanika, txapa eta pintura*

Peugeot 5008
Zatoz ikustera!

6.000

IBILGAILU

Joan den uztailean zabaldu zuten Olandixoko tunela, eta azarora arte datu esanguratsuak batu zituzten: aste barruan 6.000 ibilgailu pasatzen zen egunero.

ARRASATE

PELIKULETAKO LAPURRETA SAIAKERA CORREOSEN

"Zuzenean joan ziren kutxa blindatura, bide motzenetik". Halaxe azaldu zuen Correosko langile batek izan zuten lapurreta saiakera. Kalezuloaren sabaian zuloa egin, eta elektrizitate harien bidetik sartu ziren bulegora.

ARETXABALETA

MIKEL GALDOSEK EUSKADIKO TXAPELKETA IRABAZI ZUEN

Aretxabaletako golf jokalari profesionalak Euskadiko txapelketa irabazi zuen, puntuagarria zen azken proban, Zuian, hirugarren sailkatu eta gero. Gipuzkoako txapelketa ere irabazi zuen, hori zen lehen proba puntuagarria.

ARRASATE

PETREÑAS ETA ORMAETXEA

ARRASATEKO EPAILEAK, SARITUTA

Gipuzkoako Atletismo Federazioaren galan Arrasateko epaileek urrezko ezkurra jaso zuten 25 urtean egindako lanagatik.

ANTZUOLA

OLABARRIA ETA PILDAIN

ANTZUOLAKO ABESBATZA

Antzuolako abesbatzan 35 urtean egindako lana eskertu zieten Salbador Olabarriari eta Luis Pildaini azaroaren 28an; bazkari ederra egin zuten.

ARRASATE

Saiolan, zilarrezko ezteiak ospatzen ▼

25 urte ez dira egunero betetzen; hori dela-eta, ekitaldia egin zuten azaroaren 26an Garaian. Lehenengo, enpresa garapenaz jarduteko mahaiaren bueltan batu ziren hainbat enpresatako ordezkari, eta ondoren Saiolango kudeatzaile Armin Isastik urteurrenaren harira gertatutako memoria aurkeztu zuen. 1985ean sortu zuten Saiolan, eta 172 enpresa berri sortzen lagundu du.

ARRASATE

'La Gran Vía' zarzuelak Amaia bete zuen, berriro ◄▲

La Gran Vía zarzuelaren estreinaldia egin zuten azaroaren 20an Amaia Udal Antzokian, eta aretoa lepo bete zen. Txaloek behin eta berriro eten zuten emanaldia.

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideek XX. mende hasierako Madrilera eraman zituzten ikusleak. Hori gutxi balitz, Federico Chueca *La Gran Vía* zarzuelako zuzendaria ere bertan izan zen...

Gora ezker abertzalea!
orain
legalizazioa
debagoienako Ezker Abertzalea

Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zagun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati,
Muxibar, Taupa eta Gure Leku.

OÑATI
NAZIOARTEKO SARIA IRABAZI ZUEN GOMIZTEGIKO GAZTAK
World Cheese Awards sariketan Idiazabal jatorria duten gazten artean urrezko domina irabazi zuen Gomiztegiko gaztak. Abendu hasieran eman zieten berria Gomiztegi kooperatibakoei. Mundu osoko 2.629 gazta lehiatzen ziren sariketa hartan.

BERGARA
GILTZAGUNE ABIAN JARTZEA ESKATU ZUEN UDALAK
Giltzagune programa martxan jartzea eskatu zion Aldundiari. Pibotez itxitako kaleetan larrialdi zerbitzuak errazago sartzeko modu bat da, piboteek giltza bakarra izanda eta giltzak gordetzeko guneak jarrita kalean. 19 lekutan jartzea erabaki zen.

ARRASATE
LURRALDEBUSEN TXARTELA URBANOAN JARTZEKO ERABAKIA
Arrasateko Udalak hainbat aldaketa onartu zituen autobus urbanorako; Lurraldebusen txartela ere horretan erabili ahal izatea urtarriletik aurrera, adibidez. Bestalde, bost Mercedes autobus berri erosi zituzten Leintz Garraioek.

DURANGO
Debagoiendarrak, azokako apustu segurua ▲
Durangon (abenduaren 4tik 8ra) eta Ahotsenean debagoiendar sortzaile eta euskaltzale piloa batu da aurten. Argitalpen berriak eraman zituzten Juan Martin Elexpuruk, *Erremeixuak* DVDaren egile bergararrek, Azkaiter Peloxek, Gosek, Juan Ramon Garaik, Juan Karlos Irizarrek, Arrasateko Sexologia Zerbitzuak eta beste batzuek. Ahotsenean debagoiendarren kontzertuak ere izan ziren: Gose, Azkaiter Pelox, Emon eta Une.

ARRASATE
Objektu hegalari ezezagun baten bisita? ◄
Harridura eta ikusmin handia piztu zituzten abenduaren 2aren goizaldean Tontorreta etxe ondoko zelai elurtuan agertu ziren zirkulu perfektu misteriotsu batzuek. Bertako bizilagunek esan zuten alabatxoak zarata arraroak entzun zituela goizaldean. Ez etxekoek ez han izan ziren udal arduradunek ez zuten azalpen logikorik topatu. Gerora, esan zuten akaso aurreko jabeek ipinitako ihinztagailuek sortu izango zituztela arrastook.

ARRASATE
'Olentzero & Co.' musikala egin zuten ▲
Abenduaren 18an estreinatu zuten Oihan Vega eta Txemi Etxeberria bergararrek sortu eta zuzendutako *Olentzero & Co.* musikala, Amaia antzokian. Bergaran sortu eta gehienbat bergararrek antzeztutako musikalaren hiru emanaldi izan ziren Arrasaten, eta antzokia bete egin zuten 800 lagunek emanaldi bakoitzean. Aurre-estreinaldia ere, Eibarren, arrakastatsua izan zen oso. Hilaren 30ean Kursaalen egin zuten emanaldia.

ELUSU ERAIKUNTZAK
K21 KALITATEA
Arruriaga 5 BERGARA • 943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45
Gabon zoriontsuak, guztioi!

- **Era guztietako eraikuntzak**
- **Erreformak**
  Lokal komertzialak
  Teilatuak
  Sukaldeak
  Bainuak
  Fatxadak
- **Baserri eta jauretxeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuak**
- **Gremioen koordinazioa**
- **Proiektuak**

BERGARA, ARETXABALETA

ESKOLA IRAUNKOR ZIURTAGIRIA IPINTZAK ETA KURTZEBARRIK

Bergarako Ipintza institutuari eta Aretxabaletako Kurtzebarri BHIri Eskola Iraunkor agiria eman zien abenduaren 13an Eusko Jaurlaritzak. Eskola Agenda 21 ingurumen-heziketa programan bi ikastetxeok egin zuten lana saritu zuen Jaurlaritzak horrela.

ANTZUOLA

HILETA ZIBILEN ORDENANTZA ONARTU ZUEN UDALAK

Herriko familia, adiskide, erakunde edo taldeek hildakoa agurtzeko omenaldi zibilak arautzeko proposamena onartu zuen Udalak hil hasieran. Eskolako aterpean eta Udal Pilotalekuan egongo da omenaldiok egiteko aukera.

OÑATI

ANIMALIEN GAINEKO ARAUDI BERRIA ONARTUTA GERATU ZEN

Abereak edukitzea eta babestea arautzeko ordenantza onartu zuen Udalak, 2011n martxan jartzeko. Txakurrak dituzten herritarrei eragingo die, baina baita txorien, ahateen, katuen... zaintzari ere; adibidez, debekatu egiten da ahateei jaten ematea.

-5,5

GRADU ZENTIGRADU

Abenduaren 16ko goizaldea izan zen hileko hotzena. Aramaion izan zuten tenperatura baxuena: -5,5ºC. Bailaran izotzak ez zuen aparteko arazorik eragin.

1.300

LANPOSTU

Mondragon Taldeak 1.300 lanpostu berreskuratu zituen iazko uztailetik aurtengo urrira arte. Taldeak "hobekuntza argia" izan zuen, presidentearen esanetan.

DEBAGOIENA

Ezker abertzaleak legalizazioa eskatu zuen ▼

Orain legalizazioa lelopean giza kateak egin zituzten hilaren 18an Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Prozesu demokratikoan "urrats bat gehiago emateko" helburuarekin, "independentista eta sozialista guztiak batuko" zituen alderdia sortuko zuela azaldu zuen han ezker abertzaleak. "Ezker abertzalearen legeztapena Euskal Herrian lortu behar dugu", esan zuten.

ARRASATE, LEINTZ GATZAGA

Arrasatearrak, txapeldun First Lego League-en ►▲

Arizmendi Ikerlan taldeak irabazi zuen EAEko First Lego League txapelketa. Robot bat eta biomedikuntza proiektu bat aurkeztu behar zituzten taldeek; 26 lehiatu ziren. Gatzagako Prototype taldea hirugarren sailkatu zen. Horrela bada, Debagoieneko bi ordezkariak sailkatu ziren hurrengo faserako, Espainiako kanporaketarako. Otsailaren 27an jokatuko dute hori, Derion.

ELGETA

BERRI TXARRAK IKUSTERA 700 LAGUN JOAN ZIREN ESPALOIRA

Berri Txarrak taldeak urtea bukatzeko lau kontzertuetatik lehena Espaloian eman zuen abenduaren 10ean, eta 700 lagunek bete zuten aretoa. *Libre, Jaio. Musika. Hil* eta *Payola* diskoetako abestietan oinarritu zuten emanaldia.

ARRASATE

NAZIOARTEKO AKORDEOIETAKO TXAPELA, KROAZIARA

Ivan Sverko 25 urteko kroaziarrak irabazi zuen Arrasate Hiria nazioarteko akordeoi lehiaketa; 16 partaideren artean onena izan zen. Abenduaren 4tik 7ra jokatu ziren akordeoi lehiaketak, eta, kategoria guztietan, 300 jotzaile inguru batu dira aurten.

BERGARA

IBAIONDORAKO 86 APARKALEKU ETA BESTE ESPALOI BAT

Ibaiondo pasealekua ordenatzeko proiektua azaldu zien alkateak bizilagunei hil hasieran. Besteak beste, 86 aparkaleku berri eta, erreka kontran, espaloia eta hiru atsedengune egin nahi dira. 433.204 euroko aurrekontua du proiektuak.

OÑATI

Ziklo-kros proba berriz, 44 urteren ondoren ►▲

Baziren 44 urte Oñatin helduendako ziklo-kros probarik antolatzen ez zela. Bolada hori bukatu egin zen abenduaren 18an jokatu zen probarekin. 72 ziklista irten ziren, eta Alex Aranburu (kadeteak), Mikel Aristi (gazteak) eta Sergio Sordo (masterrak) izan ziren txapeldunak. Zaleek ere primeran erantzun zuten: bide guztian zale piloa batu ziren eta kirolariak animatu zituzten; batez ere, jakina, etxekoak.

OÑATI

Zubillagako zubi modernoa, inauguratuta ◄

Abenduaren 20an inauguratu zuten Oñatiko Udaleko, Aldundiko eta Jaurlaritzako agintariek Zubillaga auzoko zubi abangoardista. LKSk egindako proiektuaren arabera egindako zubia da. Sei metroko altuera du, zortzi metroko zabalera, eta kanpoaldean 3,60 metroko espaloia. Hain zuzen ere, bidegorria egokitu dute gune horretan. Gauez argiztatu egiten da zubia. Lurdes Idoiaga alkateak esan zuen "beharrezko zubia" gertu zegoela.

ARRASATE

Mondragon herriaren sorrera, antzezlan baten ▲

Arrasatearrek eta aramaioarrek osatutako Doke taldeak *Iragana iragan* antzezlana estreinatu zuen Amaia antzokian hilaren 18an, arrakasta handiz. Mondragon hiria sortu zeneko 750. urteurrena aitzakiatzat hartuta, pieza umoretsua taularatu zuten, Josemari Velez de Mendizabalek idatzita eta antzezlana Itziar Rekaldek zuzenduta. Arrasaten bi emanaldi egin zituzten; hilaren 26an, Aramaion; eta 30ean, Aretxabaletan.

ARETXABALETA

HERRIAREN LEHENENGO TOPOGIDA AURKEZTU ZUTEN

Naturgintza Fundazioak eta Udalak Aretxabaletako aisialdiko lehenengo topogida aurkeztu zuten hilaren 23an. Kirol ibilbideak egiteko argibide teknikoak ematen ditu. Urtarrilaren 7ra arte doan eman zuten kultur etxean.

ESKORIATZA

V. MENDEKO AZTARNAK ATXORROTZEKO GAZTELUAN

Atxorrotz gaztelua "Gipuzkoako garrantzitsuena" zelan esan zuen Iñaki Sagredo indusketen arduradunak abendu erdialdean egindako hitzaldi baten. Erakusketa bat ere zabaldu zuen. V. mendeko zeramika zatiak agertu ziren azken indusketetan.

DEBAGOIENA

JON ARMENTIA

DEBAGOIENEKO OSPITALEKO GERENTEA

"Eskualde ospitalen artean erreferente izatera ailegatuko gara eraikin berriari esker"

ARRASATE

ANE LUR GARIN

IRAKASLEA ETA FUTBOLARIA

"Arizmendiren txapelketarekin gura da nesken futbolari garrantzia ematea"

DEBAGOIENA

PETREÑAS ETA ORMAETXEA

EPAILEAK

Jose Ramon Petreñas eta Jon Ormaetxea atletismo epaileek lan horretan 28 urte bete zituzten. Federazioak Urrezko Ezkurra eman zien, 25 urteko lanagatik.

ARRASATE

Demaseko santamasak pasa zituzten ◄▼

Goizeko lehenengo orduetan euria egin zuen arren, gero atertu egin zuen eta baserritar, ganaduzale, artisau, arrasatear zein kanpotarrek egun-pasa ederra egin zuten santamasetan, abenduaren 22an. *Motxo* txerria (350 kg) izan zen protagonistetako bat. Azoketako postuek eta taloek ikusmin handia piztu zuten; taloen postuan jende-ilara luzeak sortu ziren.

ARETXABALETA

Udaleko Kirol erakundeari, Gipuzkoako saria ▲

Foru Aldundiak Aretxabaletako Udalari eman zion aurtengo Gipuzkoako tokiko kirol erakunde onenaren saria. Abenduaren 22an izan zen ekitaldia, Donostian, eta Inazio Garro alkatea, Araceli Herran Kirol zinegotzia eta Asier Muxika kirol teknikaria izan ziren. Bestalde, urteko kirolari onena Edurne Pasaban izendatu zuten. Akaba Bera Bera eta Gipuzkoako Judo federazioa izan ziren beste saritu batzuk.

Urteko onena eta txarrena

Urtearen errepasoa egiteko eskatu diegu hainbat herritarri; batzuek pertsonalki gertatu zaizkienak nabarmendu dituzte eta beste batzuek gai orokorrak aukeratu dituzte: ditxosozko krisia.

GORKA ARIZMENDIARRIETA
Espaloiko lan bazkidea
Elgeta

ISILPEKO LANA
"Kulturan hainbat pertsonak egiten duten lana, goraipatzea garrantzitsua delako, aitortza egitea merezi dutelako, gutxienez".

KONTZERTU HANDIAK
"Kontzertu handietara milaka pertsona joaten dira, eta ez deritzot gaizki, baina txikietara jendea gero eta gutxiago mugitzen da".

REYES AZKOITIA
Pilotako entrenatzailea
Bergara

REALA LEHENENGO MAILARA
"Reala dagokion kategoriara itzuli izana oso albiste polita izan da, eta behean egon ostean Athletici derbia irabaztea...".

AMAREN HERIOTZA
"Ama hil zitzaidan orain dela bi hilabete. Barriola-zalea zen, eta ni Irujo-zalea; jokatu berri duten finalean ez ginen ados egongo".

IBAN LETAMENDI
Eskiatzailea
Oñati

ETXEKOAK OSASUNTSU
"Lagun eta familiakoen artean ez dugu osasun arazorik izan, oso garrantzitsua da hori. Bestalde, kirol mailan urte oso onda izan da".

KRISI GARAIA
"Krisi garaia dela-eta jende asko geratzen ari da langabezian, eta horrek eragin handia izaten du beste gauza askotan".

ALBERTO ALTUBE
Dendaria
Leintz Gatzaga

GOIENA
"Gure bailaran informazioa euskaraz eskuratzeko aukera edukitzea pozgarria da. Askorentzat, euskaraz irakurtzeko modua da".

KANPOKO INFORMAZIOA
"Gertuko informazioa eskaini beharrean, askotan jotzen da kanpokoaren berri ematera. Eskerrak Goiena bezalako ekimenei".

VALEN MOÑUX
Orfeoiko kidea
Bergara

'OLENTZERO & CO!'
"Familia guztiak hartu dugu parte musikalean, eta polita izan da. Hori gutxi balitz, arrakastatsua izan da, gainera".

GALERA
"2010. urtean pertsona oso maitatu eta gertuko bat galdu dugu. Heriotza horrek markatu du urteko unerik txarrena".

GOIO ARRIETA
Abeslaria
Aretxabaleta

TAULA GAINERA IGO
"Aspaldidanik izan dudan amets bat bete ahal izan dut aurten: beldurrak uxatu, taula gainera igo eta ikuskizun bat egin dut".

BAKERIK EZ DUGU LORTU
"Pena dut 2010a bake barik agurtuko dugulako, baina datorren urtean gauzatuko den esperantzaz; pauso txikia geratzen da".

MAITE ALBES
Ingeniaria
Arrasate

PARTE-HARTZEA
"Arrasatearren eta gazteriaren parte-hartzea nabarmen igo da aurten. Sanjuanetako danborradan lagun mordoak hartu zuen parte".

TRATU TXARRAK ETA KRISIA
"Krisiak, baina batez ere bortxaketak eta tratu txarrek astindu dute gure gizartea. Datuak iazkoak baino txarragoak dira".

AINHOA SANCHEZ
Miss Euskadi
Aretxabaleta

REALA LEHEN MAILAN
"Reala lehenengo mailara igo izana albiste oso pozgarria izan da. Gainera, taldea ondo dabil, kategoriari eusteko bidean".

KRISIA
"Jende asko dabil krisiagatik momentu gogorrak pasatzen. Gazteek egingo dute aurrera, zerotik hasi; zailago dute nagusiek".

GOTZON IPARRAGIRRE
Mariaren Lagundiko zuzendaria
Antzuola

NOR BERE LEKUAN
"Asko gustatu zitzaidan Islandiako sumendiak eztanda egin zuenean geure lekuan, xume, apal, nola jarri gintuen".

KRISI EKONOMIKOA
"Asko arduratzen nau krisi ekonomikoa dela-eta langabe bakoitzaren atzean dagoen drama pertsonalak".

MARIA AGIRRE
Kazetaria
Aretxabaleta

BAKERAKO ESZENATOKI BERRIA
"ETAren partetik falta da behin betiko su-etena iragartzea. Hala ere, Espainiako Estatuak aurrerapauso gutxi eman ditu; baina baikor naiz".

LANGABEZIA
"Gero eta jende gehiago lan gabe, eta askok denbora luzea daramate horrela. Ezin etxera lan-sari duina eraman... gogorra da hori".

MARI SOL RAMOS
Atleta
Oñati

KIROL MAILAN URTE ONA
"Espero ez nituen kirol emaitzak lortu ditut aurten [sei aldiz Espainiako txapeldun izan da] eta lesioek errespetatu egin naute".

DOPINA ATLETISMOAN
"Marta Dominguezekin eta beste atleta bartzuekin izandako auziak min egin dio atletismoari. Errudun badira, zigorra merezi dute".

ANA MARI ZUMALDE
Erretiratuen elkarteko presidentea
Oñati

GATAZKA EGOERAK HOBERA
"Aurten Euskal Herrian dugun gatazka egoerak hobera egin duela uste dut, eta horrek itxaropena pizten du askorengan".

GIZA ESKUBIDEAK GALTZEA
"2008an hasitako krisiagatik giza eskubideen galtzea konfirmatu da, merkatu legeak hala aginduta; Gobernuak ez dira ausartak izan".

ANE UNZURRUNZAGA
KZguneko arduraduna
Bergara

JENDEAREN JARRERA ONA
"Ikustekoa da KZgunera datozen herritarrek ze jarrera ona duten, bai ikastarora datozenek, eta baita gainontzeko erabiltzaileek ere".

JENDE ASKO BATZEN DENEAN...
"Gutxitan izaten da, egun puntualak izaten dira, baina KZgunean jende asko batzen denean zaila izaten da hura antolatzea".

DORLETA KORTAZAR
Arrasateko Gazte Bulegoa
Eskoriatza

URTE BETE-BETEA
" *Egunkaria* auziaren epaia, ezker abertzalearen prozesua eta WikiLeaksekin boterearen trapu zikinak agerian geratu izana".

HERRITARREN ERANTZUN FALTA
"Jon Antzaren kasua eta krisiari aurre egiteko hartutako neurrien aurrean jendarteak emandako erantzun eskasa".

TXERRA BOLINAGA
RIP taldeko kide ohia
Arrasate

EGOERA BERRIRAKO PAUSOAK
"Euskal Herrian egoera berria izan dezagun eman diren pausoak azpimarratuko nituzke. Aldaketaren beharra daukagu".

GIZA ETA LAN ESKUBIDEAK
"Giza eta lan eskubideek atzerapausoa izan dute. Krisia ere aipatuko nuke: gutxi batzuk aberatsago eta gehienak txiroago".

AITOR ELIZARAN
Arizmendiko irakaslea
Arrasate

NORMALIZAZIOA
"Normalizazioaren alde egindakoa; euskararen normalizazioan, orientazio eta identitate sexualean, emakumearen berdintasunean...".

INDARKERIA
"Indarkeria (tratu txarrak, politikoa, xenofobia) erabiltzen duten pertsonek besteekiko tolerantzian erreparatu gabe egiten dutena".

Gabon Zoriontsuak!

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA

ETENGABEKO ZERBITZUA

LORE KOROAK

ESKELAK

TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

AITZIBER GOROSABEL
Gatz museoko arduraduna
Leintz Gatzaga

HERRI MUGIMENDUA
"Errekurtso falta handia dago herrian, baina, hala ere, jendeak ekimen ugaritan parte hartu du. Horri esker herriari bizia eman diogu".

BELDURRA
"Beldurra sumatu dut, diruarekikoa eta egoera berriei erantzuterakoan; museoan ere nabaritu da, baina egoera orokorra da".

ENEKO BARBERENA
Txatxilipurdiko presidentea
Arrasate

KRISIARI ERANTZUNAK
"Herritarrak krisiari erantzuten hasi garela ematen du, hainbat grebaren bidez. Nahikoa ez da izango, agian, baina lehen zantzuak dira".

ESPAINIAREN MUNDIALA
"Espainiak futboleko mundiala irabazi zuenean, kirol ospakizuna aberriari gorazarre egiteko erabili zuten".

JONE MUXIKA
Kirolaria
Elgeta

BAKE PROZESUA
"Bake bidean ematen ari diren pausoak dira urte honetako onena. Gauzak mugitzen ari direla ematen du".

KRISIA
"Azken denboraldiko okerrena krisia da. Etxe guztiei eragin die era batera edo bestera horrenbeste aipatzen den krisiak".

XABI HERRARTE
Txirritola euskara elkartea
Aramaio

ETA-REN SU ETENA
"ETAren su etena eta, bestetik, ezker abertzaleak hartu duen bidea erabat pozgarriak dira. Esperantzarako beste ate bat ireki da".

GIZA ESKUBIDE URRAKETAK
"Oro har, giza eskubideak zapaltzen dituen edozer gauza: genero indarkeria, pederastia, tortura, kultura txikien zapalketa...".

PELLO ZABALA
Frantziskotarra
Oñati

'GABON DUT ANUNTZIO' LANA
"Soinuz eta kantuz osatutako 3 CD horiek oso txukun geratu direla uste dut, eta proiektua gauzatu ahal izatea izan da ederrena!".

JOXE ARREGIREN HUTSUNEA
"Joxe Arregiri hemendik joaten utzi behar izatea izan da gogorrena. Gure artean gazteena zen, eta baita gehien balio zuena ere".

CARLOS ARRONDO
San Joxepeko lehendakaria
Bergara

AURREIKUSPENAK BETE
"Erretiratuen elkarterako aurreikusita geneukan programa bete dugu; beraz, hein horretan, urte ona izan dela esan daiteke".

DIRU MURRIZPENAK
"Urteko txarrena elkartearentzako diru murrizpenak izan dira. Gauzak egin nahi dira, baina askotan ezinean geratzen gara".

IKER SANCHEZ
Lokatzako entrenatzailea
Bergara

EMAITZA ONAK
"Mendiko bizikletan Euskadiko txapelketa lortu eta karreteran Euskal Herriko torneoa irabazi dugu. Emaitza onak lortu ditugu aurten".

KRISIA
"Langabeziak zuzenean eragin dit maila pertsonalean. Elkarte mailan, bestetik, dirulaguntzak lortzeko zailtasunak izan ditugu".

SAIOA OJANGUREN
Udal Liburutegiko langilea
Arrasate

OPOSIZIOA IRABAZTEA
"Krisialdian gaudela kontuan hartuta, lan kontratu finkoa izatea, liburuzain laguntzaile izateko oposizioa irabazita.

INDARKERIA
"Emakumeen aurkakoa. Arazo sozial larri ari da bihurtzen. Prebentzio, ikerketa eta ezagutzaren ikuspuntutik aztertu beharreko gaia da".

NEKANE ARRATIBEL
Huheziko dekanoa
Eskoriatza

'EGUNKARIA' LIBRE
"Euskaltzale moduan, Auzitegi Nazionalak *Egunkaria*-ko auzipetuentzat absoluzioa ematea, nahiz eta berandu izan den".

INDARKERIA MATXISTA
"Tristea iruditzen zait urtero emakumeen aurka gertatzen diren tratu txar, bortxa eta heriotza kopurua".

ARGIÑE AGIRREZABAL
Abeslaria
Bergara

'OLENTZERO & CO!'
"*Olentzero & Co!* musikalean parte hartzea izan da urte honetako onena, sekulako esperientzia izan da".

KRISIA ETA LANGABEZIA
"Urte honetan krisiak eta langabeziak gizartean sortu dituen ondorio negatiboak azpimarratuko nituzke".

ARREGI AROZTEGIA

Sukaldeak
Armairuak
Tarimak
Parketak
Leihoak
Eskailerak
Erreformak
...

Gabon zoriontsuak guztioi!

Sukaldeko altzariak

Ateak


Horma armairuak

Aulkiak

Mahaiak

Tailerra: Urteaga 20 BERGARA
Tel./Faxa: **943 76 11 73**

Erakuslekua: Bidekurutzeta 38 BERGARA
Tel./Faxa: **943 76 31 03**
e-posta: *arregiaroztegia@hotmail.com*

ENEIDA ITURBE
Kazetaria
Antzuola

SAREA LIBRE
"Internet libre eta kritiko baterako bidean egindako pausoak izan dira onena; tartean, WikiLeaksek egin duen lana".

PREKARIETATEA LANEAN
"Krisi ekonomikoaren aitzakiarekin enpresek eta gobernuek langileak gero eta gehiago prekarizatu dituztela".

NAIA BAILEZ
Gazte Asanbladako kidea
Aramaio

GAZTE ASANBLADA
"Gazte Asanbladak ekintza ugari egin ditu urtean zehar, eta horrekin erakusten dugu oraindik bizirik jarraitzen dugula".

BIDEA MOZTUTA
"AHTko obrak direla eta, herrira heltzeko bidea moztu egin zuten. Horrek traba ugari sortu dizkigu aramaioarroi".

ANASTASIA GABILONDO
Erretiratua
Antzuola

BAKERAKO ESPERANTZA
"Pauso garrantzitsuak eman dira, eta, politikariak geldi dauden arren, herria mugitzen ari da, eta hortik etorriko da bakea".

HONDAMENDIAK
"Haitin eta Pakistanen gertatu dena benetan ikaragarria izan da eta gu, eta batez ere politikariak, nahiko pasiboak gara".

BIXENTE ATXA
Goi Eskola Politeknikoko dekanoa
Oñati

SISTEMA TXERTATUEN ZENTROA
"MUk Garaian inauguratu duen zentro berria da; hor formatuko ditugu etorkizunean gure enpresak eraldatuko dituzten gazteak".

EUSKADIKO LANGABEZIA TASA
"Tasa hori jaisteko ahaleginak egin arren, igotzen jarraitzen du; ezinbestekoa izango da administrazio eta heziketa zentroen elkarlana".

MARI KARMEN ITURBE
Landa Garapen teknikaria
Antzuola

KONTSUMO TALDE GEHIAGO
"Baserritarren inguruan kontsumo taldeak sortu direla eta baserritarren lanaz kontzientziatzen hasi dela gizartea".

AHT-REN LANAK AURRERA
"Abiadura Handiko Trenaren lanak nabarmen aurreratu direla eta auzo eta baserrietan kalte handiak eragiten ari dela".

ALVARO ARREGI
Gipuzkoako Mendi Federazioko kidea
Arrasate

ETORKIZUNA
"Krisia gainditu dugu. Mundu hobea izateko, etorkizuna oreka handiagoarekin landuko dugun itxaropena geratzen zaigu".

KRISIA
"Dirua gordetzen denean, dena gelditzen da. Krisi mundialean denok gaude murgilduta, dudarik gabe ahulenak kaltetuenak izanik".

JON URTZELAI
Futbol jokalaria
Oñati

SELEKZIOAREN PARTIDUA
"Nahiz eta adostasunik lortu ez, Euskal Selekzioak Gabonetako partidua jokatuko du, eta ez jokatzea baino hobea da hori".

DOPIN ALBISTEAK
"Kirolean dopinaren inguruko berriak izan dira: Contador, Marta Dominguez... Futbolean? Hor ere egongo dira, seguru".

VALEN GOMEZ
Azkoaga Hoteleko nagusia
Eskoriatza

INGURUKOEN BABESA
"Urteko onena, aldamenean daukadan jendea. Familiak eta lagunek norberaren proiektuetarako ematen duten babesa".

JENDEA LUR JOTA
"Negatibismo handia dago eta jendea etsita dago, gogo faltarekin. Hurrengo urtera gurekin daramagu krisi ekonomikoa".

AMAIA ARRIARAN
Oihulari Klown taldeko aktorea
Bergara

OGIBIDEA ZEHAZTU
"*Clown* munduan buru belarri sartzea profesionalki, eta ogibidea izatia erabakitzea. Urte hauetan egindako esfortzuaren fruitua da".

KRISIA
"Krisia dela-eta kulturan aurrekontua jaitsi egin da eta zailagoa egiten da hemendik bizi izatea. Beharrak adimena zorroztuko du".

JUAN LUIS AZKARATE
Komunikazioan aditua
Aretxabaleta

KULTURA BIZI-BIZI
"Olandixoko tunelaren irekiera eta bertako hainbat kultura ekimen (Kooltur, Kulturateko kontzertuak, pintxo-poteoa...)".

KRISIAREN BIKTIMAK
"Gorbatadun batzuek eragindako krisia nortzuek ordaindu dugun. Bestetik, bizikletak oraindik autoa ez ordezkatu izana".

Felsinee
WWW.FELSINEE.NET

IBARGARAI ETORBIDEA 17, BEHEA · 20570 **BERGARA** · Tel.: 943 53 44 53

FISIOTERAPIA eta ERREABILITAZIOA: Fisioterapia orokorra · Drainatze linfatikoa · Kinesio-tape Bendaje neuromuskularra · Tecarterapia · G.A.H. · R.P.G.-S.G.A. · Kirol-fisioterapia · Fisioterapia Perineala · Fisioterapia Obstetrikoa (Haurdunaldiko minak - Erditze aurreko eta ostekoa)

PODOLOGIA: Etxez-etxekoa ere bai

ELIKADURA eta DIETETIKA

Inkontinentzia bezalako gaitzak ere tratatzen ditugu; partikular zein aseguruekin.
Beti klinika, mediku espezialista edota beste profesionalekin harremanetan, taldeko lana da garrantzitsuena!!!

Eskerrik asko gugan jarritako konfidantzagatik.
Zorionak eta Urte Berri On bihotzez!!!

Leire Pagaldai · Ainhoa Elorza · Ainitze Agirrezabala · Amaia Goenaga · Leire Gorosabel · Saioa Etxabarri

MANEX AGIRRE
Bertsolaria
Aramaio

AKORDIO ETA ADIERAZPENAK
"Gernikako akordioa eta Bruselako adierazpena. Eta hau diodan egunean oraindik gertatu ez den zerbait, baina gertatuko dena".

EUSKARAREN EGUNA
"Oroitzapen txarra dut abenduaren 3az eta zenbait *pertsonaia instituzional* eta abarrek azaldu zuten jarreraz".

AITOR MENDIZABAL
Pilotaria
Antzuola

IKASKETAK AMAITUTA
"Urte garrantzitsua izan da niretako, batez ere Heziketa Fisikoko ikasketak amaitu ditudalako".

HERIOTZA GERTU
"Nirekin urte askoan pilotan ibilitako lagun mina, Urdiaingo Hodei Iturriotz, auto istripuan hiltzea oso gogorra izan da".

JOKIN ANTXIA
Debagoieneko Atzegiko arduraduna
Aretxabaleta

BAKE SOINUAK DATOZ
"Nahiz eta oraindik ezer ez den gauzatu, aspaldion bake soinuak entzuten ari gara; ea 2011n amets hori gauzatzen den".

KRISIAREKIN ASMATU EZINDA
"Uste nuen lehenago irtengo ginela krisitik; ez dugu behea jo, hau luzerako da. Agintariek ez dute asmatzen krisitik zelan irten".

NEKANE SAN MIGUEL
Epailea
Arrasate

JENDEAREN BEROTASUNA
"Une gogorretan herritarren eta ezagunen aldetik jaso dugun berotasuna eta maitasuna azpimarratuko nituzke".

SENARRAREN ISTRIPUA
"Duda barik, 2010eko albiste txarrena nire senarrak izandako istripua eta haren ondorio latzak izan dira. Oso gogorra izan da".

EDORTA ARANA
Irakaslea
Leintz Gatzaga

FIRST LEGO LEAGUE
"First Lego League-eko sailkapena lortu izanak erakutsi du talde ekimen, borondate eta gogoarekin edozer lor daitekeela".

EZKUTUKO GERRAK
"Apenas aipatzen diren ezkutuko gerra ugari daude oraindik munduan; Sahara eta Txetxeniako gatazken kasua, esaterako".

SARA MANZANO
Ikaslea
Bergara

'OLENTZERO & CO!'
"Urteko musikalean parte hartzeko aukera eduki izanagatik oso pozik nago. Musika Eskolari eskertzen diot aukera hau eman izana".

BERGARAKO JAIAK
"Jaietan jende gutxi ibili da herriko kaleetan. Lehen, jende gehiago egoten zen, baina orain, pertsona asko oporretara joaten da".

IÑAKI BERISTAIN
Frantziskotarra
Oñati

BAKEAREN ESPERANTZA PIZTU
"Urte honetan bakearen esperantza piztu da, nahiz eta etsipen handiarekin. Ez dut esperantza handirik, baina bai gutxienekoa".

HAITIREN EGOERA
Haitin bizitzen ari diren egoerak kezkatzen nau; herri horren sufrimenduak eta gainontzekoon jarrera ezkorrak; ez dira laguntzak iristen.

IÑAKI MADINABEITIA
Aransgiko zuzendaria
Bergara

JOXE ARREGI
"Joxe Arregi frantziskotarrak erakutsi duen ausardia Gotzaindegi berriak ezarri dituen inposaketen aurrean".

SAHARA
"Saharako herriak Marokoko eta Europako beste hainbat estaturengandik behin eta berriz jaso dituen jipoi eta gezurrak".

PATXI DE ANDRES
Mondra futbol taldeko presidentea
Arrasate

REALA ETA MONDRA
"Reala lehen mailara itzuli izana da gertatu den onena. Mondrak taberna zabaldu izana ere gauza ona izan da".

INDARKERIA ETA KRISIA
"Genero indarkeria eta bizi dugun krisia, urteko okerrena. Talde, elkarte eta pertsona txiroenei eragin digu egoera ekonomikoak".

KEPA ERRASTI
Aktorea
Aretxabaleta

'80 EGUNEAN' FILMA
"Euskaraz, ohitu gabe gauden gaiei buruzko lanak ere sor daitezkeela erakusten duelako film on horrek".

EUSKARA GUTXI ANTZERKIAN
"Arte ezenikoen munduan, konpainia batzuen aldetik euskaraz sortzeko dagoen kompromiso eta seriotasun falta".

HIRU
AROZTEGIA
ATEAK - LEHIOAK - ZORUAK
HORMA ARMAIRUAK
Antigua auzoa z/g
ANTZUOLA
Tel./ Faxa: 943 76 63 59
Zorionak eta Urte berri on!



OIHANA KORTAZAR
Kirolaria
Elgeta

AMATASUNA
"Duda barik, 2010. urte honetako gauzarik onena nire amatasuna izan da. Sekulako esperientzia dela esatea gutxi da".

GALGO OPERAZIOA
"Urteko txarrena, *Galgo operazioa* deritzona. Horrelakoak ikusita normala da zalantzak edukitzea kirol arrakasten inguruan".

MANOLO MUÑOZ
Saskibaloi elkarteko kidea
Eskoriatza

HERRIA BIZIRIK
"4.000 biztanleko herri batek elkarlanaren bitartez nola antolatzen dituen horrenbeste ekintza, eta kalitatezkoak".

ZAHARREN EGOITZAREN AUZIA
"Eskoriatzako zaharren egoitzarekin gertatutakoa. Espero dut lehenbailehen konpontzea, bertako egoiliarrengatik".

ZURIÑE VELEZ MENDIZABAL
Kazetaria
Arrasate

GOIENAREN 10. URTEURRENA
"Goienak 10. urteurrena bete du, bideko trabak ibilian gaindituz, eta eraberriturik etorri zaigu beste urte mordoxkari aurre egiteko".

DIRULAGUNTZA TXIKIAGOAK
"Krisia dela eta, euskara elkarte, euskal kultura erakunde, euskarazko hedabide eta abarri dirulaguntza txikiagoak eman zaizkie".

MAIALEN AXPE
Atleta
Arrasate

ESPAINIAKO TXAPELKETA
"Asko entrenatu ostean jaso dut saria: pertika-jauziko Espainiako txapelketa irabazi dut. Oso pozik nago".

KANPORA ENTRENATZERA
"Emaitzak lortzeko laguntza txikia izan dut, eta horregatik Arrasatetik kanpoko elkarte batera joan beharra izan dut entrenatzera".

MARI CARMEN GALDOS
Moja
Oñati

ETORKIZUNEAN ARGI IZPIAK
"Solidaritatea ikusi dut gure artean, klima aldaketagatik geroago eta kontzientziatuago gaude... badira argi izpiak etorkizunari begira".

POBREAK, BABES GABE
"Katastrofe naturalen aurrean herritar pobreak babesgabe zelan geratzen diren ikustea: Haitiko lurrikara, Kolonbiako uholdeak...".

OLATZ PAGALDAI
Aktorea
Eskoriatza

REALA LEHENENGO MAILAN
"Realak izugarrizko lana egin zuen iaz. Talde moduan jokatu zuen, eta horren ondorioz igoera lortu zuen".

SAHARA ETA MAROKO
" Politikariek izan duten pasibotasuna sahararren eta marokoarren artean gertatu den gaztazkaren aurrean".



TAMARA PEREZ
Ekin elkarteko eragilea
Arrasate

15 URTEURRENA
"Gure elkarteak 15 urte bete ditu aurten, eta goraipatzekoa da urteotan bertan aritu diren euskal emakumeen lana eta inplikazioa".

TRATU TXARRAK
"Emakumeon erasoen aurkako borrokan pausoak eman diren arren, tratu txarrek ez dute etenik. Aurtengo datuak okerragoak dira".

SABRINA PATO
Dietista
Bergara

KONTSUMO TALDEAK
"Azken denboraldian bailaran sortu diren kontsumo taldeak aipatuko nituzke. Baserritarrei zuzenean erostea ahalbidetzen die".

AHT
"AHT bailaran eragiten ari den kaltea. Inguru guztia txikituz... Lehen autobidearekin ez genuen gutxi, eta orain hau!".

XABIER IGARTUA
Aloña Mendiko saskibaloi entren.
Oñati

WIKILEAKS
"Bazen garaia norbaitek estatu ezberdinen gehiegikeriak agerian uzten dituzten dokumentuak azalarazteko, eta salatzeko".

EZ GAUDE DENAK
"Joxepa Arregin ehorzketan berak maite zituen denak ezin egon izana; eta oraindik ere, ez dute hilerrira bisitan joateko aukerarik".

ITSASO MENDIZABAL
Jarduneko lehendakaria
Bergara

GERNIKAKO AKORDIOA
"Bake biderako oinarriak adostu eta gatazka politikoa aterabide demokratikoetara eramateko aukera berria da; esperantza piztu du".

GURE ESKUBIDEEN KONTRA
"Espainiako estatua gure herriaren eskubideen alde lanean dabilen edonor atxilotzen, torturatzen, kondenatzen... jarraitzen du".

250 lagunentzako jantokia

Gustua eta luxua denon eskura

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA

MARIASUN PAGOAGA | AKTOREA

"Gazte sentitzen naiz, sasoiko nago eta gura ditudan gauzak egin ahal ditut orain"

Urtea ezin hobeto joan zaio Mariasun Pagoaga mondragoetarrari. '80 egunean' film luzearen protagonistetako bat da. Doke antzerki taldeaz, egoera ekonomikoaz eta gaur egungo egoeraz jardun dugu luze eta zabal

Mariasun Pagoaga da 2010. urtean nabarmendu den debagoiendarretako bat. *80 egunean*

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Mariasun Pagoagarendako 2010. urtea ezin hobea izan da. 60 urterekin, *80 egunean* film arrakastatsuko protagonistetako bat izateko aukera izan du. Aurre-erretiroa hartuta, bilobei eta antzerkiari eskaintzen die eguneko tarterik handiena.

Nondik datorkizu interpretatzeko zaletasuna?

Nik neuk ere ez dakit. Ez nekien dohain hori neukanik ere. Pailazo samarra izan naiz beti eta asko gustatzen zait umeekin jolasean ibiltzea, mozorrotzea...

Doke antzerki taldearekin murgildu zara interpretazioan?

Bai, Goikobalu abesbatzaren 10. urteurrenaren harira egin zen antzezlanarekin: *Eskuak elkarri*. Oso antzezlan polita. Hura izan zen ondorengo Doke antzerki taldearen ernamuina.

Handik sortu zen Doke?

Bai, Josemari Velez de Mendizabal ere han zen eta hura da gure gidoigilea, idazlea esan dezagun. Gainera, haren bitartez jarri ginen harremanetan Itziar Rekalde Dokeko zuzendariarekin. Hura da profesional bakarra, gainerakoak amateurrak gara.

EUSKAL HERRIARENTZAT DATOR GARAI BERRIA, ABERTZALEOK BAT EGIN ETA LORTZEKO BAKIA

Ezin dugu aukera hau galdu

DEBAGOIENEKO EA

film arrakastatsuko protagonistetako bat da. | ENEKO AZKARATE

Zenbat antzezlan egin dituzue?

Bi: *Acto para la Nochebuena* eta *Iragana iragan*, oraingoa. Baina, horretaz gain, urtero egin izan dugu zer edo zer kalean.

Zer da *Iragana iragan*, zer kontatzen duzue?

Mondragoeren sorreraren 750. urteurrena da ardatza. Orain dela 750 urteko emakume mondragoetar bat naiz. Orduko eta gaurko Arrasate gogoratzen dugu. Paralelismoak ikusiko ditugu orduko eta gaurko jendartearen gainean... Batzuek Arrasate gura dute; nik, gurago Mondragon. Lehengo eta gaurko eztabaidak dira. Herria pertsonok osatzen dugu eta izena ez da garrantzitsuena. Laminak ere kokoteraino jartzen ditugu horrenbeste Arrasate eta Mondragon... Oso gaur egungoa da antzezlana.

Euskal zineman nolabaiteko ospea lortu duzu eta pentsatzen dut Dokerengatik izan dela.

Bai, argi eta garbi. *80 egunean* eta *Bi anai* filmatu ditut. Azken hau ez da estreinatu oraindik.

Zelan suertatu zitzaizun *80 egunean* filmean parte hartzeko aukera?

Iaz martxoaren 18an deitu zidan Itziar Rekaldek:"Mariasun, Hollywoodera joateko aukera daukagu!". Aste Santu bezpera zen eta Cambrilsera gindoazen. Filma ekoizten duen etxeak 60-70 urtekoen bila zebiltzan eta hara joan ginen lau lagun Arrasatetik, proba egitera. Oso ondo pasa genuen Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño zuzendariekin. Geure artean esaten genuen: "Zenbat gazte egongo da lehen aukeraren bila eta gu, ostera, daukagun adinarekin eta hemen". Handik egun batzuetara bigarren proba egin nuen, eta, azkenean, deitu egin zidaten esateko hautatu egin nindutela. Baietz esan nuen berehala.

Ez zenuen zalantzarik izan?

Baiezkoa esan ostean etorri zitzaizkidan dudak. Ze premia neukan nik halako saltsa baten sartzeko!

Zaila egin zitzaizun?

Ez. Baina gogor egin behar izan nuen lan. Gidoitzarra buruz ikasi behar! Eta euskara batuan! Nire disko gogorra ez dago txantxetarako! Eskerrak Mondragoeko euskarara moldatu genuen. Hala gura izan zuten zuzendariek, eta nire alaba Eiderrek moldatu zuen.

Alabek asko lagundu dizute.

Bai. Besteak, Aitziberrek, Arte Dramatikoa ikasi du eta papera prestatzen lagundu zidan.

"Pailazo samarra izan naiz beti eta asko gustatzen zait umeekin jolastea"

"Oso istorio erreala eta unibertsala da '80 egunean' filmekoa"

Arrakastatsu bilakatu da filma.

Bai. Donostian, Zinemaldian, sari bi eman zizkiguten. Guztira, zazpi sari jaso ditu: Hanburgon, Pragan... Munduko hainbat zinema jaialditan erakutsi da. Orain dela gutxi, Indian eta Kairon.

Zergatik izan du horren erantzun ona filmak?

Oso istorio erreala eta unibertsala da. Bestalde, aktoreak oso gustura sentitu gara filmaketan. Oso ondo pasatu dugu. Itziar Aizpuru, Jose Ramon Argoitia eta hirurok oso eroso egon gara. Primeran konpondu gara. Zuzendariek ere ezin hobeto tratatu gaituzte.

Bi emakume nagusiren arteko harreman homosexuala kontatzen du filmak. Beldurrik izan duzu?

Hasieran bai. Istorio berezia da. Azkeneko bost urteotan interpretazioaren munduan ibili izana oso ondo etorri zait. Eta lesbianarena egin behar bada, egiten da eta kito. Laztanen sekuentzia grabatu genuenean, Itziar eta biok oso lasai geunden, ekipoko gainerakoak baino lasaiago.

Harreman homosexualak modu naturalean onartzen ditu jendarteak gaur egun?

Oraindik ez. Zorionez, asko aurreratu eta normaldu da egoera, gazteen artean batez ere. Asko dira euren homosexualtasuna ezkutuan gordetzen duten adinekoak.

***Bi anai* da filmatu duzun beste pelikula. Atxaga ezagutzeko aukera izan duzu, gainera.**

60. orrialdean, jarraipena.

AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoen,
Gotzone Arkarazo, Maitane Larrañaga eta
Itxaro Astondoa laguntzaileen partez

Ondo pasa
Gabonak

Ordutegia: 08:00-21:00
(Eguerdian ere zabalik)

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Inplanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

AEGON aseguroak

Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23

59. orrialdetik dator.
Bai, aurtengo udan filmatu dugu. Paper txikia daukat, eta bi egunean grabatu nuen. Ez dauka aurrekoarekin zerikusirik.

Apurka-apurka badabiltza egiten euskarazko pelikulak eta oso genero ezberdinekoak, gainera.
Bai, eta poztekoa da hori. Azkenekoz egin diren euskarazko bi filmetan parte hartu izana ohorea da niretako.

60 urte dituzu, aurre-erretiroa hartuta, gustuko dituzun zereginetan murgilduta...
Zorte handia izan dut. 58 urterekin hartu nuen aurre-erretiroa, 2008ko azaroan, eta martxoan etorri zitzaidan *80 egunean* filmerako aukera. Orain dela hogei urte ibili nintzen trikitia jotzen, baina ahaztuta neukan eta berriro errekuperatu nahi nuen. Ingelesa ere hobetu nahi nuen... Gauza asko nituen egiteko, plan asko, baina aparkatuta ditut. Interpretazioak eta bi bilobek naukate okupatuta. Egunero egoten naiz bilobekin, 3 eta 6 urtekoak dira, neska eta mutikoa: Izadi eta Igortz. Oso gustura egoten naiz haiekin. Etxe guztietan egon beharko lukete umeek. Haien irribarrea, zoriontasuna, inozokeria... Umeek gaztetu egiten zaituzte.

Zeu agertzen zaren filma ikusi dute?
Nagusiak, bai. Ez zitzaion gustatu. Gustatu zitzaion Asun eta neu mozorrotu eta pailazokeriatan hasten ginenekoa bakarrik. Ez da umeendako. Pirritx eta Porrotx ditu gustuko, normala denez.

Fagorren lanean ibilitakoa zara. Zer moduz?
Oso ondo. Publizitatean, marketinean eta komunikazioan jardun dut.

Zela ailegatu zinen publizitatera?
Orain dela 44 urte hasi nintzen lanean Coprecin. Batxilergoa bukatu eta 17 urterekin lanean hasi nintzen opor sasoian, udan. Hiru hilabete egin ostean, jarraitzeko aukera eskaini zidaten eta lanean segitu nuen. Urtebete egin nuen Coprecin tailerrean. Gero, bulegoetan lan egiteko probak egin zituztenean, atera egin nuen eta Fagorren hasi nintzen. San Andresen jardun dut erretiroa hartu arte. Lehenengo lau urteak diru-kontuak eroaten eta gero publizitatean.

Fagorren ziklismo taldeak-eta ezagutu dituzu gertu-gertutik.
Bai, Fagor Mercier lehenengo eta Fagor geroago. Arrasateko Eskola Profesionalean egiten ziren taldearen aurkezpenak. Jose Luis Pecker TVEko kazetari ospetsua etortzen zen. Fagor markaren kudeatzailea izan naiz. Eroaten nituen Fagorren aurkezpenak Espainian, Frantzian eta Marokon: ekitaldiak, konbentzioak...

Gaur egun aurre-erretiroa 58 urterekin hartzea zorte handia da. Zure alabak nekez erretiratu ahal izango dira horren gazte.
Bai, hala da, baina 17 urterekin ez ziren hasi lanean ni hasi nintzen moduan. 42 urte eman ditut lanean... Ni gazte sentitzen naiz, sasoiko nago eta gura ditudan gauzak egin ahal ditut orain.

Erretiratzeko adina luzatu beharraz ze iritzi daukazu?
Kudeaketa ez da ona izan. Dirurik ez dagoela? Gezurra! Batzuen eskuetan dago dirua! Betikoek ordaindu behar izaten dute.

Urtea, oro har, ez da ona izan.
Nire kasua alde batera utzita, txarra izan da. Ez dut krisia aipatu nahi. Gezur handia da hori; engainatuta gauzkate ipuinekin.

Zergatik da txarra urte hau?
Jeneralean ez dugu zintzo jokatzen. Arazoa behar den moduan konpondu beharrean, erroetara joan beharrean, saiatzen gara engainua erabiltzen unean uneko arazoei irtenbidea aurkitzeko.

Jendartea lo ikusten duzu?
Bai. Gure ondorengo belaunaldiak oso eroso bizi dira. Geuk ere izango dugu horretan errua, baina...

Interesatzen zaizu politika?
Dena da politika, baina politikariak ez ditut gustuko. Zinegotzi izandakoa naiz Arrasaten.

Bakea eta normaltasun politikoa gertuago daude orain?
Bai, zalantza barik. Oraingoan bai. Gurako nuke.

Wikileaks jarraitu duzu?
Hedabideetan-eta atera dena. Baina zer tapatu nahi dute honekin? Zergatik dabiltza agertzen gauza batzuk eta zergatik ez beste batzuk? Bigarren irakurketak egin behar dira beti, lerro artean irakurri. Zenbat trapu zikin manta azpian! Edozelan ere, ona da halakoak irtetea, baina dena, eta ez xantaia egiteko.

Gabonak gustuko dituzu?
Bai. Familiartean abestu, goizeko ordu bietan berakatz zopak gertatu eta berriro abestu... Hori bizi izan dut, gurasoengandik ikasitakoa da eta geuk ere hori erakutsi diegu ondorengoei.

Mariasun Pagoaga, Arrasaten, biloben bila joan aurretik. | ENEKO AZKARATE

Gozokien paperean batutako oparia

"2010. urtea opari bat izan da, gozokien paperean batuta. Oso urte polita. Gura izan dudana egin dut", dio Mariasun Pagoagak amaitzear dagoen urtea gogoratzerakoan. "Ni baino okerrago edo egoera kritikoan dagoenik bada, baina uste dut oraindik badugula aukera denok erosoago, ondo eta zoriontsu bizi izateko daukagunarekin. Soldata ailegatzen zaigun bitartean... Aurtengo pertsonaiaz galdetuta, ez du zalantzarik: Iñaki Perurena. "Euskal Herriaren jatorriaren gaineko maisu-klasea eman dio kazetari bati. Izan ere, jakinduria, berbeta-jarioa, komunikatzeko erraztasuna... *Chapeau!*".

"Dirurik ez dagoela? Gezurra! Batzuen eskuetan dago dirua!"

"Etxe guztietan egon beharko lukete umeek. Haien irribarrea..."

ELAY Taldea

BIKAINTASUNARI BEGIRA EGINDAKO LANA

Lizarragako Hiribidea z/g
20577 Antzuola
Gipuzkoa
Tel.: 943 76 61 00
Faxa: 943 76 62 62
www.elay.com

autopullmans Araba

Zorionak eta urte berri on!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 23 45
San Juan auzoa 11 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70

Ezkerretik eskuinera:
Mikel Lizarralde
Oihan Vega
Fermin Etxegoien
Arkaitz Billar
Iker Barandiaran

2010eko musika, bost ahotan

- Musika munduan urteak eman duenaren gainean galdetu diegu goiko irudietako adituei
- Talde, disko, zuzeneko, areto eta albiste onenen gainean egin dugu berba eurekin
- Euskal Herrian eta nazioartean entzun dutenaz galdetu diegu; erantzuna, denetarikoa

Atom Rhumba izan da urteak eman duen talderik onenetarikoa. Danbakako finalean izango ditugu talde gonbidatu gisa, urtarilaren 14an. | GOIENA

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Musikaren mundu zabalean, 365 egunek askorako ematen dute. Hain da zabala, atzean uztear gauden 2010eko musika uzta zehatz -mehatz azaltzeko hamaika liburu beharko genituela. Edo gaur egunera etorrita, hamaika gigabyte-ko disko zurruna.

Baina ez da hori gure helburua, ez horixe. Urteak eman duenaren onena gogora ekarri gura dugu. Euskal Herrian zein atzerrian, musikak eman duen onena, hain zuzen. Ez onena bakarrik: *bluff* deritzaien horiek ere ez ditugu ahaztu gura, hau da, espektatibak bete ez dituen musikariei ere emango diegu euren tartetxoa. Eta hori guztia behar den moduan egiteko, zer hobeto gaian adituak direnen iritzia jasotzea baino. Debagoieneko bost musika aditurekin egon gara eta urteko talderik onena, diskorik onena, zuze-

62. orrialdean, jarraipena.

GOIKOETXE HARATEGIA

ZORIONAK
eta urte berri on !

Salbador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

ILE APAINDEGIA

Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

Gabon
jai zoriontsuak

Txinaurriak diskoaren azala.

The Resistance, Muse taldearena.

61. orrialdetik dator.
nekorik onena, musika aretorik onena, musika albisterik onena eta huts edo *bluff* handienak zeintzuk izan diren galdetu diegu. Adituak dira, egunero musika gertutik bizi dutenak. Eta ez hori bakarrik, euskal hedabideetako kultura sailetan eskarmentu handia dutenak: Mikel Lizarralde eta Oihan Vega bergararrak, Arkaitz Billar eta Fermin Etxegoien oñatiarrak eta Iker Barandiaran arrasatearra.

Musikaren mundu zabalak 2010ean eman duena bost begitatik ikusita eta bost belarritatik entzunda, beraz. Erantzunak denetarikoak izan dira, ondorio komunak ateratzea ia ezinezkoa da. Horretan datza, hain zuzen, musikaren edertasunak: arauak ez daude ezarrita, musika maitatu edo gorrotatu daiteke eta maitatu edo gorrotatzeko irizpideak denetarikoak izan daitezke. Adituen erantzunak dira horren erakusle.

Atom Rhumbaren itzulera

Euskal Herriko talde onenaren gainean bi aditu bat datoz. Iker Barandiaranek eta Fermin Etxegoienek Atom Rhumba uste dute izan dela 2010eko euskal talderik onena. Honakoa dio Fermin Etxegoienek: "Deskantsuaren ostean bueltatu dira eta euren estiloan parekorik ez dutela erakutsi dute. Aurten egin dituzten zuzenekoetan argi eta garbi utzi dute hori". Iker Barandiaranek honakoa gaineratu dio Etxegoienen gogoetari: "Itzuli dira, indartsu eta fitxaketa berriekin. Aipatzekoa da Joseba Irazokiren ekarpena. Oso maila altua dute, eta hori argi uzten dute zuzenekoetan". Arkaitz Billarrendako Delorean izan da urteko talderik onena eta Oihan Vegarendako, berriz, ETBren *Bigira* saioan ezaguna egin zen May-Bi bikotea nabarmendu da aurten: "Diskoa esku artean dutela, Euskal Herrian eta orain, ahots onak daudela ziurta daiteke", dio Vegak Miren Oteitzaren eta Bea Asurmendi aramaioarraren gainean.

Nazioarteko talde onenen artean Mikel Lizarraldek, esaterako, Beach House aukeratu du talde onena moduan. Aurten atera duten *Teen dream* diskoan Victoria Legrand eta Alex Scallyren musikak "amesteko ez ezik, bidaiatzeko" ere balio dezakeela dio: "Dream-pop etiketaren barruan kokatu dute baina hirugarren disko honetan Galaxie 500 eta Cocteau Twins taldeak ekartzen dituzte gogora [rock alternatiboa]". Beste bi talde ere nabarmendu dituzte adituek: Rhapsody eta The Ex. Lehen taldearen itzulera destakatu du Oihan Vegak: "1990eko hamarkadako heavy talderik ospetsuenetarikoa izan zen Rhapsody; aurten atera duten diskoan antzeman daiteke ez dutela euren indarra galdu. Azkarrak eta instrumentuekin oso trebeak, indartsu bueltatu dira". Barandiaranek Holandako The Ex taldea ikusten du atzerriko 2010eko onena moduan: "Makina bat urte daramate jotzen eta oraindik ere gai dira desagertutako Fugazi moduko talde bat ordezkatzeko. Egun, post-hardcorearen erregeak dira".

Diskoetan, denetariko iritziak

Urteko diskoa izendatzeko denetariko iritziak dira nagusi gure adituen artean, bai Euskal Herrian zein atzerrian. Oihan Vegak May-Bi bikotearen diskoa nabarmendu du Euskal Herrian eta Muse talde britainiarraren *The Resistance* lana nazioartean: "Iaz kaleratu zuten diskoa, baina aurten berrargitaratu dute, liburuxka eta guzti. Munduko talde onenen artean jarraitzen dute oraindik ere".

Fermin Etxegoienendako Bilboko Split 77 taldearen azken diskoa izan da 2010eko euskal diskorik onena. Etxegoienendako ez da oharkabean pasa Deustuko laukotearen itzulera. Nazioarteko lanik onena, berriz, The National taldearen *High violet* diskoa da musikazale oñatiarrarendako. Arkaitz Billarrek Delorean talde zarauztarraren *Subiza* lana eta Sly Johnsonen *74* diskoa nabarmendu ditu.

Mikel Lizarralderendako, bestalde, urteko disko onena egiten duena da urteko talde onena. Beraz, nazioartean Beach House eta euren *Teen dream* lana aipatu ditu. Baina Euskal Herriko lanik –eta beraz, talde– onena Rafael Berrioren *1971* diskoa dela uste du: "*1971* da bere izenarekin grabatu duen lehen diskoa. 1980ko hamarkadako rockaren alderik ezkutuena landu izan du musikari donostiarrak, UHF, Amor a traicion eta Deriva taldeak gidatuta eta Lou Reed-en eskolako rockari begira. Bada, *1971* ezberdina da: Joserra Senperenaren konponketekin eta Leonard Cohen handiaren eraginpean, gurean azken urteetan entzun diren hitz landu eta ikaragarrienak konposatu ditu. Lan zirraragarria".

Diskoen errepasoarekin amaitzeko, Iker Barandiaranek Mikel Laboaren omenez grabatutako *Txinaurriak* lana izan du gogoan: "Mikel Laboa moduko erreferente bat omentzen du, eta hainbat taldek hartzen dute parte. Laboaren kantuak berrasmatzeko erronka nota altuarekin gainditu dute, bai horixe". Lizarraldek ere nabarmendu du *Txinaurriak* diskoa, Bidehuts proiektuaren emaitza gisa: "Albiste ona eta interesgarria

ESANAK

"Interesgarria da Bidehuts: Euskal Herriko musikariak batzea"
MIKEL LIZARRALDE

"Bilboko Kafe antzokia areto ideala da: soinu oso ona du eta erosoa da"
FERMIN ETXEGOIEN

"May-Birekin Euskal Herrian eta orain ahots onak ditugula ziurta daiteke"
OIHAN VEGA

"Diskogintzak bizi duen krisian, Ahotsenea moduko planak behar dira"
ARKAITZ BILLAR

"Musika zaleok agenda on bat behar genuen: hori 'Musika Zuzenean' da"
IKER BARANDIARAN

Rafael Berrioren *1971* diskoa.

Delorean taldearen azkena: *Subiza*.

ETXEEN SUSTAPENA ETA ERAIKUNTZA
PABILIOIAK
ZAHARBERRITZEAK
URBANIZAZIOAK
PROIEKTUAK
BERGARA
943 76 11 23
GRUPO GOITU
Goitu eraikuntzak. S.L.
Maztarreka 14-16. BERGARA
Tel. 943 761123 • Fax. 943 763041
goitu@grupogoitu.com
www.grupogoitu.com

Ahotsenea guneak goraipatu dute adituek; irudian, Kherau taldea. | GOIENA

Lady Gaga da egungo poparen erregina, Oihan Vegaren ustez. | GOIENA

Beach House taldearen *Teen Dreams*.



Sly Johnson-en *74* izeneko diskoa.

High Violet diskoaren azala.

da Euskal Herrian musikariak nola ari diren biltzen proiektuak lantzeko, eta horren adibide da Bidehuts proiektua".

Zuzenekoak, krisiaren antidoto

Urteak eman duen onenaren errepasoa egiteko ezin dira zuzenekoak alde batera utzi; are gehiago, diskoetxeek bizi duten krisi garaian, azken urteotan zuzenekoek hartu duten garrantzia kontuan hartuta. Zuzenekorik onenaren *garaikurra* ere Atom Rhumbak eraman du gure adituen artean.

Hala ere, zuzeneko interesgarri batzuk ere aipatu dizkigute. Adibidez, Oihan Vegak Gatiburen zuzenekoa azpimarratu du: "Badakite jendea erakartzen, jendearengana heltzen. Jendeak ondo pasatzea gura du, kantu ezagunak abestu eta parrandan egin. Eta hori da, hain zuzen, Gatibuk eskaintzen duena". Iker Barandiaranek, bestalde, jatorri argentinarra duen eta Bilbon bizi den Capsula izeneko hirukotearen zuzenekoak aipatu ditu: "Agertokian bizi dira, lo ere bertan egiten dutela esan daiteke. Agertokiari neurria hartuta diote, erabat, eta igartzen da izugarri eroso sentitzen direla taula gainean".

Zuzeneko bat ona izan dadin taldearen jarrera ezinbesteko lehengaia da, baina aretoak berak badu zerikusia. Euskal Herriko areto onenaren *saria* Bilboko Kafe antzokiarendako da, gure adituen iritziak aintzat hartuta. Honakoa dio Fermin Etxegoienek: "Urtean zehar programaziorik onena duen aretoa da, erosoa eta areto ertainen arten parekorik ez duena. Sonoritate aldetik ere ideala da". Iker Barandiaranek, bestalde, Gasteizko Hell Dorado du gustuko: "Rock izerditsuenaren erreferente da, erosoa eta soinu oso ona duena". Atzerrira begira AEBetako Town Ballroom aretoa nabarmendu du musika aditu arrasatearrak: "Ikaragarria da soinu aldetik; lehen aldiz behar izan nituen belarrietarako tapoiak!"

Ahotsenea, albiste onena

Urteko albiste onenen artean Durangoko azokako Ahotsenea gunea nabarmendu dute. Arkaitz Billarrek honela azaldu du: "Ahotsenea moduko plataformek hartu duten indarra albiste izugarri ona da. Sortzailea entzulearekin harreman zuzenean jarri du eta emaitza oso interesgarria izan da. Diskogintzan krisia bada ere, oso interesgarria da halako proiektuak hartzen ari diren indarra".

Oihan Vegak, bestalde, kontzertuen areagotzea definitu du urteko albiste onena moduan: "Disko gutxiago saltzen da, baina horrek sortzaileendako ez du zertan txarra izan, zuzenekoetan erakutsi behar dutelako zer egiteko gai diren". Iker Barandiaranek, bestalde, *Musika Zuzenean* webgunea nabarmendu du: "Euskal Herriko zein atzerriko musikazaleok behar genuen musika agenda on bat. Egun agenda gutxi daude eta egunkarietakoak ez dira oso fidagarriak. Halako atari osatu bat izatea oso albiste ona da".

Hala ere, albiste txarrak ere izan dira. Esaterako, Barandiaranek dioen moduan, EITBk Estricalla taldeari egindako zentsura. Atzerrian, Enrique Morente abeslariaren eta flamenkoa berritu zuen artistaren heriotza ere gogora ekarri du arrasatearrak.

Urteko hutsak edo 'bluff'-ak

2010eko musikan ez da dena ona izan. Hutsak edo *bluff*-ak izan dira, hots, espektatibak bete ez dituzten taldeak. Horien artean adituek honako artistak aipatu dituzte, nazioarteko atalean: Madonna –Lady Gagak hartu dio poparen erreginaren koroa, Oihan Vegaren ustez–, The Pains of being pure, The XX, Magnetic Fields eta Sufjan Stevens.

Gure taldeen artean *bluff* aipagarrienen artean Lain taldea aipatu dute.

Gabonetarako zoriontasuna opa dotsuet,
Urte Berrirako oparotasuna
eta zuen aixkidetasunarekin betirako kontatzea.

Zorionak eta Urte Berri On!

Maria Isabel Hurtado

KARATEA SASOIAN EGOTEA MUSKULAZIOA
AEROBIKA SPINNINGEKO ZENTRO OFIZIALA PILATESA

GIARTZU

www.giartzu.com
gimnasio@giartzu.com
estetika@giartzu.com

GIARTZU ESTETIKA

GERMAINE DE CAPUCCINI

Adinaren aurkako tratamenduak • Aurpegiko zimurren tratamendua
Aknearen orbanen tratamendua • Aurpegi, lepo eta bularraren orbanen tratamendua
Gorputzeko relax tratamenduak • Hanka zelulitikoen tratamendua
Bolumena txikitzen duten tratamenduak

Kabitazioa, Ultrasoinuak, Bakuterapia, Elektorestimulazioa, Txokolaterapia, Kafeterapia,
Ardoterapia, Azalaren sendotzea,...